

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

**Euskal Autonomia
Erkidegoaren Administrazio
Orokorren Kontua**

**Cuenta de la Administración
General de la Comunidad
Autónoma de Euskadi**

2009



AURKIBIDEA/ÍNDICE

I. SARRERA	7
II. IRITZIA	8
II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia	8
II.2 Administrazio orokorraren kontuari buruzko iritzia	14
III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI	
BURUZKO IRIZPENAK	15
III.1 Aurrekontuak eta kontabilitatea	15
III.2 Langileen gastuak	16
III.3 Diru-laguntzak	17
III.4 Kontratazioa	21
III.4.1 Aurreko ekitaldietan esleitutako espedienteak	21
III.4.2 2009an esleitutako espedienteak	21
III.5 Kontratu txikiak	23
III.6 Lurraldeka bereizitako gastuak eta sarrerak	24
III.7 Beste alderdiak	24
IV. FINANTZEN ANALISIA	25
V. 2009-KO EKITALDIAREN KONTUAK	31
ALEGAZIOAK	37
BOTO PARTIKULARRAK	63
I. INTRODUCCIÓN	73
II. OPINIÓN	74
II.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad	74
II.2 Opinión sobre la cuenta de la administración general	80

III. CONSIDERACIONES SOBRE SISTEMAS DE CONTROL INTERNO

Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN..... 81

III.1	Presupuestos y contabilidad	81
III.2	Gastos de personal	82
III.3	Subvenciones.....	83
III.4	Contratación.....	87
III.4.1	Expedientes adjudicados en ejercicios anteriores	87
III.4.2	Expedientes adjudicados en 2009	88
III.5	Contratos menores	90
III.6	Gastos e ingresos territorializados	91
III.7	Otros aspectos	91

IV. ANÁLISIS FINANCIERO..... 92

V. CUENTAS DEL EJERCICIO 2009..... 100

ANEXOS 105

A.1	Normativa aplicable	105
A.2	Modificaciones presupuestarias.....	106
A.3	Gastos de personal	108
A.4	Gastos de funcionamiento	110
A.5	Transferencias y subvenciones corrientes y de capital.....	111
A.6	Inversiones reales.....	113
A.7	Variación de activos financieros (gastos).....	114
A.8	Tasas y otros ingresos	115
A.9	Ingresos por transferencias corrientes.....	116
A.10	Ingresos por transferencias de capital.....	117
A.11	Variación de activos financieros	118
A.12	Residuos pendientes de cobro y pago	118
A.13	Tesorería	119
A.14	Operaciones extrapresupuestarias	120
A.15	Cuenta general de la deuda pública	121
A.16	Avales concedidos	123
A.17	Créditos de compromiso.....	125
A.18	Contratación	126
A.19	Contratos menores.....	132
A.20	Contabilidad pública.....	133
A.21	Gastos e ingresos territorializados	134

ALEGACIONES 139

VOTOS PARTICULARES..... 163

Vitoria-Gasteiz, 2011eko urriaren 4a
Vitoria-Gasteiz, 4 de octubre de 2011





Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren Kontuaren 2009ko ekitaldiari dagokion fiskalizazio txosten hau mamitu du, epaitegia arautzen duen 1/1988 Legeak agindutakoari eta Lanerako Urteko Programak ezarritakoari jarraiki.

Fiskalizazioak honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezkoak: ezargarria den arautegia honako alor hauetan betetzen dela egiaztatzea: aurrekontua, zorpetzea, finantza-eragiketak, langileria, obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidurak, diru-laguntzak eta laguntza publikoak eta zuzenbide publikoko diru-sarrerak.
- Kontularitzakoak: Kontu Orokorra ezargarriak diren kontularitzako printzipioen arabera mamitu den aztertuko dugu.
- EAEren aurrekontu likidazioaren eta egoera ekonomikoaren finantza analisisia.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren eraginkortasun eta zuhurtasunari buruzko azterlanik besarkatzen. Nolanahi ere, azaleratu diren hutsak “barne kontrolerako sistemari buruzko irizpenak” idazpuruan zehaztu ditugu, horiek hobetzeko gomendioekin batera. Berebat, ez dira Bizkaiko Jabetza Ganberaren ondasunen likidazioa eta esleipena aztertu, HKEEK berariazko txostena egingo baitu bi atal horiei dagokienez.



II. IRITZIA

II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoko Urteko Kontuetan eta aurrekontuetan ez dira sartu sektore horretako fundazio eta partzuergoei dagozkienak. Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina (EAEONAL) onartzen duen 1/1997 Legegintzako Dekretuko (1997ko azaroaren 11koa) 7.4. artikuluan xedatutakoarekin bat, horiek ere osatzen dute EAEko sektore publikoa.

2.- 2009rako onartutako aurrekontuek ez dute sarrera eta gastuen lurraldekako sailkapenik barne hartzen. Euskadiko Aurrekontu Erregimenari buruzko Testu Bateratua (EAETB) onesten duen 1/1994 LDren (irailaren 27koa) 57. artikulua agintzen duena urratuz. (Ikus A.21).

3.- 2005ean, Lutzana-Munoa-Barakaldon 39 etxebizitza sozial eta eranskinak egiteko eraikuntza 3,4 milioi euroren zenbatekoan esleitu zen. 2009ko ekitaldian, zenbateko horrek 0,3 milioi euroko aldaketa izan du eta ez da dagokion espedientea izapidetu. Prozedurarik eza hau Gobernu Kontseiluak baliokidetu zuen. Aldaketa hauek % 58 gehitu dute hasiera batean esleitutako aurrekontua eta honek Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Testu Bateratua (APKLTB) onesten duen ekainaren 16ko 2/2000 Legegintzako Errege Dekretuan jasotako lehiaketa printzipioak urratzen ditu; izan ere, gogoan izan behar baita kontratuak aldarazteko eskumena beti ere zuhurtziazko muga baten baitan gauzatu behar dela, zenbatekoaren igoerak kontrataren bolumen ekonomikoa ez itxuraldatzeko moduan. (Ikus A.18).

4.- Ollargan-Arriorriagan 2007ko ekitaldian 54 etxebizitza eta eranskinak eta 20 garaje eraikitze lanak esleitu ziren 4,5 milioi euroko zenbatekoan; ordea, bigarren aldiz eten ziren 2008ko azaroan, lur-azpian meazuloak aurkitu ondoren. 2009an hirugarren azterketa geoteknikoa egin zen eta aurreko biek ez bezala, meatzearen gainean etxebizitzak eraikitze ezintasuna egiaztatzen zuen. 2010eko apirilean, Etxebizitza, Herrilan eta Garraio Sailburuaren Agindu bidez, kontratua suntsitzeko espedienteari hasiera eman zitzaion. Proiektua onesteko fasean azaleratu diren akatsek 2 milioi euroko gastua eragin dute. Gainera, espedientean ez dago erasota proiektua egitean izandako akatsengatik erantzukizunak eskatzeko jarduerarik abiarazi denik, APKLTBren 219. artikuluan xedatutakoaren arabera. (Ikus A.18).

5.- Bilbo Zaharreko 1 eta 2 eraikinetan 25 eta 30 etxebizitza eraikitze lanak 2008an aldi baterako partzialki eten dira ondoko etxebizitzan arrailak egin izanaren ondorioz. 2009an, esleipen hartzaile zen enpresak lanak eteteagatik kalte-ordaina eskatu zuen; 2010eko urtarrilean 0,2 milioi euro ordaindu zitzaizkion eta ez da kontratistak jasandako kaltea egiaztatu, APKLTBren 102. artikulua agintzen duen modura. (Ikus A.18).

6.- Hondarribiko beteranoen kaia antolatu eta zaharberritzeko obren kontratua 3,6 milioi euroko zenbatekoarekin esleitu zen 2008ko ekitaldian; kontratuari 1,8 milioi euroko aldaketa egin zaio eta horrek hasiera batean esleitutako aurrekontua % 50 gehitzea ekarri du. Aldaketa honek SPKLn jasotako lizitazio printzipioak urratzen ditu; izan ere, gogoan izan behar baita kontratuak aldatzeko eskumena betiere zuhurtziazko muga barruan gauzatu behar dela, kopuruaren igoerak kontrataren bolumen ekonomikoa ez itxuraldatzeko moduan. Aldaketa honen lehenengo ziurtagiria Gobernu Kontseiluak baliokidetu du, bideratu gabe baitzegoen dagokion espedientea; aldaketa 1,1 milioi eurokoa izan da. (Ikus A.18).

7.- Gasteizko Zubibarri kaleko artxiboaren lanak 8,3 milioi euroko zenbatekoarekin esleitu ziren 2008an; kontratistari kontratuan aurreikusi gabeko hondakinak garraiatu eta zabortegean gordailatzeagatik 0,1 milioi euro ordaindu zaizkio; ordea, kontratua ez da aldatu lanak egikaritu aurretik eta horrek SPKLren 202 eta 140.4 artikulua urratzen ditu. (Ikus A.18).

8.- 2007ko urtarrilean “Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioarako giza baliabideen sistema ezartzeko eta zerbitzu osagarriak emateko” zerbitzu kontratua esleitu zen 12,6 milioi euroko zenbatekoan; kontratua emateko epea, luzatu ondoren, 2010eko abenduaren 31n amaitzen zen.

Hasi zenetik eta 2009ko abenduaren 31ra arte, kontratuaren egikaritzak 8,8 milioi euro egin ditu. 2010eko abuztuaren 20an alde bien adostasunez kontratua suntsitzeko prozedura abiarazi zen, xedea epean betetzeko ezintasunaren ondorioz. 2011ko martxoaren 2an, Justizia eta Herri Administrazioako Sailburuaren Aginduz, kontratua suntsitu egin zen. Bi aldeen artean adostutako kontu-sailen balorazioak honako hauek dira:

- Harrera-gai diren moduluak, 4,5 milioi euroko balioa dutenak.
- Gainerako lanen neurketa eta balorazioa, 1,8 milioi euroan egindakoak.
- Administrazioak 2,4 milioi euroren zenbatekoan gauzatutako eta eragindako zerbitzuak egikaritzean kostu handiagoa.
- Zerbitzuak egikaritzean 1,3 milioi euroko kostu handiagoa, esleipen hartzaile zen EAB/UTEk eragin eta sortutakoa.

Zerbitzu Juridikoek alde bien adostasunez kontratua suntsitzeari buruzko txostenaren arabera, kontratua osatzen duten kontu-sailen zenbatekoa neurritz kanpokotzat jo daiteke, izan ere, harrera-gai ez diren moduluak eta prestazioen kostu handiagoak, harrera-gai diren lanen adinako zifra egiten baitute ia.

Amaitzeko, ez da zehaztu guztira 8,8 milioi euroren zenbatekoan egikaritutako gastuaren guztizkoaren zein ehuneko izan daitekeen aprobetxagarria, gastu horren zati handi batek huts egin baitu, eta honenbestez, horren exekuzioak ez ditu eraginkortasun eta eragimen irizpideak gorde. (Ikus A.18).

9.- Orioko kirol portuaren zutoin-oholezko nasa indartzeko lanak 2009ko uztailean esleitu ziren 0,6 euroren zenbatekoan publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bitartez; ordea, ez zen behar bezainbat egiaztatu emaitza bera eskuratu ezin zitekeenik SPKLren 96. artikulua arautzen duen presako tramitazioa baliatuta. Gainera, egiteko epea amaitua zegoela % 70 luzatzea onetsi da. (Ikus A.18).

10.- Telebistan emateko Euskal Herrian zientzia eta teknologiari buruzko 37 programa egiteko kontratua (Teknopolis), 0,4 milioi euroko zenbatekoarekin esleitu da publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bidez; ordea, ez dago SPKLren 154 d) artikulua aipagai dituen arrazoi teknikoen behar hainbateko arrazoitzerik, esleipen hartzailea kontratua betetzeko agindu dakioken enpresa bakarra dela justifikatuko duena. Kontratu hau alde batera, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak 2009an 60.000 euroko diru-laguntza izenduna eman dio kontratistari Teknopolis telebista programarako; horrek kontratuaren prezioa aldatu dela suposatzen du, SPKLn aurreikusitako prozedurak albo batera. (Ikus A.18).

11.- Apirilaren 8ko 77/1997 Dekretuak Osasun Sailak osasun zerbitzuak ituntzeko oinarri-arauak ezartzen ditu; dekretu honek dio zerbitzu horiek onartzeko osasun zentro, establezimendu eta zerbitzuek gutxieneko betekizun batzuk bete beharko dituztela eta horien artean, lehenik jasotzen den betekizuna da horren funtzionamendua Osasun Sailak edo, EAEz kanpo kokaturik dauden zentroyen kasuan, horretarako eskumena duen Osasun Administrazioak baimendu beharko duela. Bestalde, zentro, zerbitzu eta osasun establezimenduak baimentzeari buruzko otsailaren 21eko 31/2006 Dekretuak agintzen du jardunean jartzeko baimena ezinbesteko betekizuna dela Osasun Sailarekiko itun edo hitzarmenak gauzatzeko. Honela, bada, Osasun Sailak gauzatuak ondoko osasun itunotan: “Bizkaiko Osasun Barrutiko gaixoentzat etxerako dialisia”, 0,4 milioi euroren zenbatekoan esleitutakoan eta “Arabako Osasun Barrutiko eta Otxandio eta Ubide udalerrietako gaixoentzat osasun garraioa”, 1,1 milioi euroren zenbatekoan esleitutakoan, ez da ageri nahitaezkoa den jardunean jartzeko baimena. (Ikus A.18).

12.- “Bizkaiko lurralde historikoan egonaldi luzeko ospitalizazio psikiatrikoa” kontratua ospitale batekin gauzatu zen itun moldearen pean, 0,4 milioi euroren zenbatekoan; ordea, zentro honek esleipena gauzatu zen unean ez zituen homologazio betekizunak betetzen, arestian aipatutako 77/1997 Dekretuaren 4. artikuluan eskatutakoak. (Ikus A.18).

13.- Ondasun eta zerbitzuen 24 erosketa egin direla ikusi da (guztira, 2,2 milioi euroren zenbatekoa izan dute). Kontratu txikien prozedura erabiliz egin dira, eta honako sail hauetakoak izan dira: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailekoak (10); Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailekoak (10); Lehendakaritza Sailekoak (2), Barne Sailekoa (1) eta Enplegua eta Gizarte Gaietarako Sailekoa (1). Hortaz, kontratuaren xedea zatikatu da, eta hori SPKLko 74.2 artikulua debekatzen du. Kontratazio horiek guztiak lehiaketa publiko bidez egin behar ziren, eta publizitate eta lehia printzipioak betez. (Ikus A.19).

14.- Gobernu Kontseiluak, EAEren Kontabilitate eta Ekonomia Kontrolerako 14/1994 Legearen 24.4 artikuluan aurreikusitako aparteko prozeduraren bitartez, 2009ko ekitaldiko gastuen aldeko fiskalizazio juridiko-ekonomikoa hartu du bere gain, 23,6 milioi euroren zenbatekoan -3 eta 6. paragrafoetan deskribatutakoa barne hartuta-, aurrez Ekonomia Kontrolerako Bulegoak (EKB) kontrako txostena jaulkia zuela. Gastu hauek honako hauei dagozkie: 5,3 milioi euroko 10 obra kontratari; 1,3 milioi euroko 6 hornidura kontratari; 15,5 milioi euroko 14 zerbitzu kontratari eta 1,5 milioi euroko 4 kontratu pribatari; hona hemen ez-betetze nagusienak: publizitate eta lehia printzipioak ez betetzea, epea iraungi ondoren zerbitzua ematen jarraitzea eta kontratua bidegabe zatikatzea. (Ikus A.18).

15.- Eusko Jaurlaritzak eta Fundazio batek 2009ko otsailaren 27an lankidetzak protokoloa izenpetu zuten; bertan Jaurlaritzari dokumentu-funts bat emateko konpromisoa ezartzen zen; Halaber, Fundazio horri funtsa kudeatzeak eragindako kostu ekonomikoa konpentsatzeko konpromisoa ere besarkatzen zuen.

Espedientea 3 milioi euroko diru-laguntza zuzena emanda ebatzi zen, nahiz kontraprestazio bat zegoen; inguruabar horrek auzitan jartzen du diru-laguntzaren moldea hautatu izana, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legeak aurreikusten duena (EAEONAL). Konpentsazio ekonomikoa Funtzionamendu gastuen kapituluaren kontura erregistratu da, nahiz eta diru-laguntza zuzen modura onetsi den.

16.- Halaber, 6,7 milioi euroko diru-laguntzak eman zaizkie 28 onuraduni Gobernu Erabaki bitartez; onuradun horiek aurreko bi ekitaldietan ere helburu berbererako diru-laguntza arruntak jaso zituzten; honek EAEONALen 49.7 artikulua apartekotasun betekizuna urratzen du.

17.- Diru laguntza zuzenak eman dira Gobernu Kontseiluaren Erabaki bidez, nahiz diruz lagundutako jarduera arautzen zuten izaera orokorreko hainbat xedapen existitzen ziren; horrek urratu egiten ditu EAEONALen 49.7 artikulua apartekotasun eta xedapen orokor bidez deialdia egiteko ezintasuna; hona hemen onuradunak:

- Confebask, Teknalia Fundazioa eta IK-4, 2,5 milioi euroren zenbatekoan, EAEko enpresa eta teknologia zentroetara ikerlari zientifikoak eta teknologoak ekartzeko, berrikuntza sistema eta lehiakortasuna hobetzeko; ordea, jarduera horiek guztiak industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailburuaren 2009ko urriaren 14ko Agindu bitartez araututako laguntzetan daude barne hartuak; agindu horrek Ikertu Programa garatzen du, giza kapitala prestatu eta indartzeko laguntzei buruzkoa.
- EITB Ente Publikoa, 1,4 milioi euro, komunikabideetan pobretutako herrialdeen lankidetzarako laguntzen produkzio eta hedapenerako; ordea, jarduera hori otsailaren 27ko 34/2007 Dekretuak aurreikusten dituen laguntzen barruan jaso daiteke, Garapenerako Laguntza Funtzaren kontura proiektuei laguntzak ematea arautzen duena. Gainera, laguntza hau hainbat ekitaldiz geroztik eman da eta horrek apartekotasun betekizuna urratzea dakar.



18.- Gobernu Kontseiluaren Erabaki bitartez diru-laguntzak eman dira, xedapen orokor bitartez laguntzen deialdi publikoa egiteko ezintasuna justifikatu gabe, EAEONALen 49.7 artikuluan ezarritakoari jarraiki:

- UNED Bergara Fundazioari “Pentsamendua XXI” proiekturako, 0,9 milioi euroan. Ez diru-laguntzaren oroitidazkiak, ez proiektuarenak, ez dute beste erakunde batzuekin lehia sustatzeko ezintasuna justifikatzen, enpresa edo etorkizuneko erakundeak, giza ikerketakoak, unibertsitateak, eta abar. Fundazioak diru-laguntzaren justifikazio zatizko modura 160.295 euroko gastuak barne hartu ditu, hitzarmenak babesten ez dituen jardueri dagozkienak.
- Errenteriako Udalari San Markos Fortea balioan jartzeko, 0,7 milioi eurokoa eta Vitoria-Gasteizko Udalari, Kongresu, Erakusketa eta Arte Eszenikoen Jauregia eraikitzeke finantzaketa, 25,6 milioi eurokoa. Diru-laguntza bakoitzaren oroitidazkiek ez dute justifikatzen kultur ekipamendu eta azpiegituretarako laguntzak arautzeko ezintasuna, izan ere, izaera orokorrarekin balizko beste onuradun batzuei ezar lezizkieke-eta.

19.- Bizkaiko Foru Aldundiaren aldeko 8,1 milioi euroko transferentziak egin dira; transferentzia horiek eragindako gastuak ekitaldiaren kontura erregistratu dira, Herri Dirubideen Euskal Kontseiluaren 6. Erabakiari jarraiki, 2010eko otsailaren 12koa, ekarpenak zehazterakoan Gipuzkoako lurralde historikoaren Ondareari buruzko Zerga mantentzeak eragin dituen ondorioak direla-eta. Aipatutako erabakiak ez ditu zehazten gainerako erakundeen artean BFARI egindako konpentsazioa banatzeko erabilitako irizpideak zein izan diren eta ez ditu juridikoki euskarritzen Administrazio Orokorrak zergak ordaintzeko zioak. Bestalde, Ordainketa agindua Gobernu Kontseiluak alde aurretik gastua baimendu gabe gauzatu da, 2009ko ekitaldirako EAEn Aurrekontu Orokorren 19/2008 Legearen 30.1 artikulua agintzen duen legez.

20.- 2009ko urtean, itunpeko sareko ikastetxeetan, jabetza kooperatiba edo fundazio moldekoa denean (HEZKOOP Programa), 2005eko abenduaren 1 eta 2008ko ekainaren 1 artean amaitutako inbertsioak finantzatzeko laguntzak eman dira, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuaren 2008ko irailaren 2ko Aginduaren indarrez.

- Aipatutako Aginduan ez dira justifikatzen laguntzen deialdia egiteko unean jada gauzatuak dauden inbertsioak finantzatzera emandako laguntza programa baten arrazoiak eta helburuak. Horregatik, deialdi honek ez du 1/1997 LDren 49.3 artikulua printzipioa gordetzen; LD horrek agintzen du laguntzak eta diru-laguntzak emateko arau erregulatuak, ezarritako betekizunak betetzen dituzten guztien lehia askea ziurtatu behar dutela eta berdintasun mailan bertarako sarbidea erraztu.
- Honako hauei emandako laguntzak:
 - Orereta Ikastolari, 0,8 milioi euroren zenbatekoan, besteak beste, 2005eko irailean eskuratu ziren higiezin erosteko finantzatzeko; aipatutako Aginduaren 1.2 artikulua urratzen du eta deialdiaren esparruz kanpo uzten ditu 2005eko abenduaren 1a baino lehenago amaitutako inbertsioak; baita 3. artikulua ere, diruz lagungarri diren



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

jardueratzat hartzen baititu ikastetxeetako jabeek finantza etxeekin higiezinak erosteko edo eraikuntza berriko obrak egiteko, indarreko legeriak agindutako betekizunei egokitzeko, zabaltzeko edo ordezkatzeko izenpetutako maileguak, betiere 2005eko abenduaren 1 eta 2008ko ekainaren 1 arteko aldian gauzatutakoak.

- San Viator-Arizmendi Ikastolari, 1,1 milioi euroren zenbatekoan, 2005eko maiatzaren 18an gauzatutako maileguak diruz laguntzeko; laguntza hauek Aginduaren 3. artikulua urratzen dute, espedientean ez baita egiaztatu maileguak 2008ko urrian erositako higiezin bat finantzatzeko erabili direla.

21.- GAITEK 2009 programatik 22 proiektu fiskalizatu dira; horien helburua produktu berrien garapena sustatzea da; 22 horietatik 15ek -guztira 2 milioi euroko laguntzak jaso dituztenak- programaren Agindu arautzailearen 12.3 artikulua urratzen dute; artikulua honek diruz lagungarri diren jarduerak laguntza-eskabideak bideratzeko epea ireki ondoren abiarazteko agintzen du.

Gure iritzira, EAEren Administrazio Orokorrak, aurreko idatz-zatietan aipatutako lege-hausteak alde batera, zuzentasunez bete du 2009ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

II.2 ADMINISTRAZIO OROKORRAREN KONTUARI BURUZKO IRITZIA

1.- Euskal enpresei Finantza Babesa emateko Programa arautzen duen arautegian eta finantza-erakunde kolaboratzaileekin izenpetutako hitzarmenetan aurreikusitakoari jarraiki, EAEren Administrazio Orokorrak funts likidoak bideratu ditu eta finantza-erakundeek horiek baliatu dituzte programaren onuradunei kreditu eragiketak edo maileguak emateko. Dirufunts hauek erabil ezin daitezkeen kontuetan daude gordailatuak, harik eta eragiketa horiek indarrean dauden bitartean, 1 eta 3 urte bitartean alegia. Kontuen saldo biziak une bakoitzean emandako finantzaketa erakusten du, oso-osorik elkarren bermerako bi sozietatek abalatzten dutena. Ekitaldi itxieran kontu horietan gordailatutako zenbatekoa 512,9 milioi eurokoa zen. (Ikus A.13 eta A.16). Horrek esan nahi du 2009ko abenduaren 31n Diruzaintza Geldikin erabilgarria kopuru horretan murriztu beharko litzatekeela.

Honela, bada, 2009ko abenduaren 31ko Egoeraren Balantzeko Diruzaintza eta Finantza Inbertsioen idazpuruak, hurrenez hurren, 512,9 milioi euroren zenbatekoan murriztu eta gehitu behar lirateke.

2.- 2009ko abenduaren 31n gauzatutako eta erabili gabeko maileguak, 350 milioi eurokoak, ez dira Diruzaintza Geldikinetik murriztu 2009ko ekitaldirako EAEk Administrazio Orokorraren aurrekontu likidazioan jasotako Diruzaintza Geldikin Erabilgarriaren kalkulua egitean. Mailegu horiek 2010eko urtarrilean eta otsailean erabili ziren.

Aurreko urteetan baliatutako irizpide bera baliatu izan balitz, Diruzaintza Geldikin Erabilgarria 350 milioi euro murriztuko zatekeen.

3.- Doitutako Diruzaintza Geldikinaren kalkuluan, 2009ko aurrekontuen likidazioan barne hartutakoan, ez dira deduzitu abalak erreklamatzeko arrisku eta epaia jaso zain dauden auziengatiko zuzkidurak, aurreko ekitaldietako aurrekontuen likidazioetan egin ohi zen modura. Nolanahi den ere, zuzkidura horiek 2009ko abenduaren 31n Egoera Balantzearen Arrisku eta Gastuetarako Zuzkiduren idazpuruan barne hartu dira, 93,6 milioi euroren zenbatekoarekin. Administrazioak aipatutako zuzkidurak ez barne hartu izana justifikatu du esanez ez direla berariaz jasotzen Finantzei buruzko 8/1996 Legearen 19. Artikuluaren 2. idatz-zatian, diruzaintza geldikinak erabiltzeko prozedura arautzen duena. Baldin eta 2008ko ekitaldira arte erabilitako irizpideari eutsi izan balitzaio, Diruzaintza Geldikin Erabilgarria 93,6 milioi euroren zenbatekoan murriztuko zatekeen.

Gure iritzira, 1. eta 2. paragrafoetan jasotako hutsak salbuetsita eta 3. paragrafoan eta 2009ko Aurrekontuaren Likidazioan 1etik 4ra bitarteko Oharretan adierazitakoa aintzat hartuta, EAEren Administrazio Orokorraren kontuek alderdi esanguratsu guztietan 2009ko ekitaldiaren jardura ekonomikoa erakusten dute.

III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan jaso dira bai ekonomia-finantza jarduera arautzen duten printzipioen betetzea nabarmen eragiten ez duten hutsak, bai prozedurazko alderdiak ere, kudeaketa hobetzeko azaleratu ditugunak.

III.1 AURREKONTUAK ETA KONTABILITATEA

3.1.1. Gobernuak EHUri bi mailegu eman dizkio, 17,7 milioi euroko erabilitako saldoa dutenak; maileguak erakundearen Inbertsio eta Azpiegitura Programako (2006-2010) exekuzio erritmoaren eta EAEn Administrazio Orokorrak aipatutako programa finantzatzeko emandako diru-laguntza izendunean aurreikusitako urtekoen arteko desbideraketak finantzatzeko eman dira; ordea, egokiena urtekoak exekuzio erritmoari egokitzea zatekeen.

3.1.2. Gainera, Egoera Balantzean, ez da jaso ibilgetuaren partida sorta bat osatzen duten ondasun guztien banakako xehetasuna; besteak beste, honako hauena: instalazio teknikoak, ekipamendu informatikoa, makinak, tresnak eta altzariak, aplikazio informatikoak eta abar. Elementuak erosketa urtearen arabera multzokatu eta hala erregistratu ziren. Modu honetan erregistratutako zenbatekoa, guztira, 336,8 milioi euro da.

3.1.3. Finantzen Euskal Erakundeak 2009ko ekitaldi itxieran 60,3 milioi euroko diru-funts likidoak zituen kontu korranteetan, EAEn Administrazio Orokorrak Fondo Sozialari egindako ekarpenetik zetozenak. Erakundeak gaur egun ez du diru-funts hauek ibilgetzea justifikatuko duen jarduerarik betetzen. (Ikus A.7).

3.1.4. Aldeak daude Laguntza Finantzarioko Programan kolaboratzaile diren finantza etxeetan irekitako kontu berezietako saldoen eta programa horrek araututako mailegu eta kredituen kontzeptuan emandako abalen zenbatekoaren artean. Hitzarmenetan ezarritako baldintzen arabera, kontuetako saldoek data jakin batera, indarreko abalen zenbatekoaren pareko edo txikiagoak behar lukete izan; ordea, ekitaldi itxieran aldea kontrako zeinukoa da eta Administrazioak ez du horren gaineko argibiderik ematerik izan. Gogoan hartuta kontu horien zenbatekoa Administrazioak baliatzerik ez duela, kontrol egokia bermatuko duten prozedura beharrezkoak ezarri beharko dituzte.

3.1.5. Osakidetzari inbertsioetarako transferentzia kontzeptuan 22,4 milioi euroko ordainketak egin zaizkio, ekitaldi itxieran egiaz egikaritu gabe daudela; honek Euskal Herriko Diruzaintza Nagusiaren irailaren 30eko 211/1997 Dekretuaren 34.3 artikuluan xedatutakoa urratzen du.

3.1.6. Gaur egun aurrekontuen legeek Administrazioak urtero eman beharreko bermeen bolumena mugatzen dute, baina ez dute inongo mugarik ezartzen abalak berriz bermatzeko. Eragiketa hauek hartzen ari diren tamaina ikusita, gomendagarria litzateke aurrekontuen legeek muga bat barne hartzea, izan ere, praktikan modu zuzenean emandako bermeek konprometitzen duten modu berean konprometitzen baitute administrazioa. (Ikus A.16).



III.2 LANGILEEN GASTUAK

Langileen erregistroa

3.2.1 75/1983 Dekretuak EAEn Administrazioaren eta bere baitako diren Entitate Publikoen zerbitzura diharduten langileen erregistroa sortu zuen. 2003ko urtean EAEn Administrazio Orokorren zerbitzura diharduen langileriaren erregistro informatikoa egin zen; ez ditu, ordea, irakasleak eta Ertzaintza besarkatzen, aipatutako dekretuak agintzen zuen legez; horiek aparteko erregistroa dute.

Lanpostuen Zerrendak (LZ)

3.2.2 Indarreko Lanpostu Zerrendek ez dituzte 2009ko ekitaldian aurrekontuko zuzkidura zuten guztira 2.201 plaza barne hartzen, ondoko xehapenaren arabera:

LANGILERIA MOTA	PLAZA KOPURUA:
Justiziatik transferitua	1.995
Hezkuntza Saileko lan kontratupeko langile ez irakaslea	83
Nekazal eta Jabetza Ganberetatik datorren langileria	41
Hainbat sailetako bestelako langile funtzionarioa (1)	41
Tokiko farmazialari sanitarioak eta Osakidetzaik datozenak	23
Hezkuntza Saileko funtzionario ez irakaslea	6
Beste batzuk	12
GUZTIRA	2.201

(1) Organo judicial berrien eta EAEn zuzkidura berrien 38 plaza barne hartzen ditu.

2010ean, uztailaren 20ko 202/2010 Dekretu bitartez Bulego Judiziala osatzen duten 5 unitateren LZak onetsi dira; guztira 182 lanpostu besarkatzen dituzte. EAEn Justizia Administrazioaren zerbitzura diharduen langileriari dagokion LZ berriak Botere Judizialaren Kontseilu Orokorren oniritzia jaso du, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 522.2 artikulua agintzen duen legez eta Justizia Ministerioak behin-betiko onartu zain dago.

Ordainketak

3.2.3 Irakasle funtzionario ez unibertsitarioaren lan baldintzak arautzen dituen Erabakia onesten duen 182/2007 Dekretuan –2009ko urtean indarrean zegoena– seiurtekoen kontzeptuko ordainketa bat ezarri zen. 2009an lehenengo seiurtekoaren kontzeptuan egindako ordainketak 16,8 milioi eurokoak izan dira eta gainera, langileria horrek 18,95 euroko igoera lineala izan du bigarren eta ondoko seiurtekoen ordainetan.

Seiurtekoa dedikazio bereziko osagarri modura sortu zen; horren helburua irakasleriaren prestakuntza eta ikastetxearekiko dedikazioa sustatzea zen, denboraren faktorea (sei urteko zerbitzualdia) eskubide hori sortzeko beharrezko baldintzetako bat izanik, karrerako langileria funtzionarioari ezargarria. Ordea, 396/1995 Dekretutik aurrera seiurtekoa zorpetu, banatu eta kolektibo onuradunaren betekizunak aldatu ziren eta horren ondorioz, bigarren eta ondoko



seiurtekoak urtero globalki kalkulaten dira, eskuratutako zenbatekoa irakasle kopuruaren artean igoera lineal baten bitartez banatuz, izaera finkagarria duena.

Seiurtekoen egungo arautegia berraztertze gomendatzen dugu, etorkizuneko lan baldintzak arautuko dituzten erabakietan jaso ahal izateko, berriazko osagarrian izaera pertsonaleko ordainsari kontzeptuak ez jasotzearen. Asmoa Administrazio Orokorren gainerako funtzionarioekin berdintzea baldin bada, ordainketa homologatzeko prozesuari ekiteko komenigarritasuna aztertu behar litzateke.

3.2.4 Halaber, ez zaio antzintasun osagarriaren ordainsari izaerari egokitzen; osagarri hau produktibitate-osagarri modura hartzen da Administrazio Orokorreko funtzionarioen kasuan.

3.2.5 Honez gainera, 2005etik 2007ra bitarteko urteetarako Ertzaintzako langileriaren lan baldintzak arautzen dituen Akordioa onesten duen 438/2005 Dekretuak, 2009an indarrean zegoenak, 54.2 artikuluan antzintasunagatiko ordainsaria kalkulatzeko EFPLren 81.3 artikulua adierazitakoaz besteko moldea ezartzen du; eta 57. artikulua dagokiona baino kategoria altuagoko lanpostuak zerbitzu eginkizunean betetzeak eragiten duen aparteko lan jarduera ordaintzera zuzendua dagoen produktibitate osagarria barne hartzen du, Ertzaintzako funtzionarioen zerbitzu eginkizunetarako aurreikusitako ordainsarien legezko araubideari egokitzen ez zaiona (Euskal Herriko Polizia-Legearen 4/1992 Legearen 72.4 art.).

III.3 DIRU-LAGUNTZAK

Zuzeneko diru-laguntzak

3.3.1 Azaroaren 11ko 1/1997 LDk Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian lehiara meneraturik emandako diru-laguntzen zerrenda argitara emateko obligazioa ezartzen du; ordea, azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorren arabera, Gobernu Kontseiluaren Erabakiz zuzenean emandako haiek ere argitaratu behar lirateke.

3.3.2 Honako diru-laguntza zuzen hauek aztertu ditugu:

		Euroak milioikoetan
SAILA	KONTZEPTUA	2009
Lehendakaritza	UNED Bergara Fundazioa "Pentsamendua XXI" proiektuaren garapenerako	0,9
Etxebizitza	Vitoria-Gasteizko Udala - Alde Zaharrean lanak	9,0
Hezkuntza	EAEren udalak – Musika Irakaskuntzarako Zentroak	5,0
Hezkuntza	itunpeko ikastetxeak – hezkuntza aholkulari eta orientatzaileen finantzaketa	14,1
Hezkuntza	EAEko ikerlari zientzilari eta teknologoaren txertaketa	2,5
Hezkuntza	Basque Culinary Center – Ikerketa eta berrikuntza zentroa	3,4
Kultura	Errenteriako Udala – San Markoseko Fortea	0,7
Kultura	Vitoria-Gasteizko Udala – Kongresu Jauregia eraikitzea	25,6
Gizarte gaiak	Komunikabideak hedatzeko EITBren hitzarmena	1,4
Gizarte gaiak	Brasilgo "Escuela Nacional Florestan Fernandes" delakoarekin hitzarmena	0,6
GUZTIRA		63,2

- Confebask, Tecnalia Fundazioa eta IK-4ri guztira 2,5 milioi euroko diru-laguntza zuzena eman zaie; diru-laguntzak EAEONALen 50.1 artikulua urratu du, laguntza edo diru-laguntzen onuradun modura emakida euskarritzen duen jarduera burutzen duten funts publikoen hartzaileak bereizten baititu; izan ere, laguntzen azken hartzaileak ez dira aipatutako erakundeak soilik, baita horien asoziatuak ere. Gainera, laguntzen emakidan Administrazioak ez ditu finkatu azken onuradunen hautaketa objektiboa bermatuko duten arauak, eta horiek jasoko dituzten diru-zenbatekoak. Nolanahi den ere, onuradun izan diren erakundeen parte hartzeari beharrezko iritziko balitzaio laguntzak hobeto kudeatzeko, horiek erakunde kolaboratzaile modura parte hartzea erabaki behar zatekeen, horien araubidea arautzen duen 698/1991 Dekretuaren III. idazpuruan xedatutakoari jarraiki.
 - Gasteizko Udalari alde zaharrean obrak finantzatzeko 9 milioi euroko diru-laguntza eman zitzaion eta Errenteriako Udalari 0,7 milioi eurokoa, San Markos Forteari dagokion balioa emateko; ordea, diru-laguntza horiek emateko erabakiek ez dituzte diru-laguntzaren gaineko kontrol egokia gauzatzeko ezinbesteko diren ezaugarriak zehazten, hala nola, jarduerak egikaritzeko aurrekontua, epeak, parte-hartze eta kontrolerako baliabideak ezartzea, e.a.; horiek guztiak lankidetzaz hitzarmen baten bitartez arautu behar ziratekeen.
- Gainera, Gasteizko Udalari emandako diru-laguntzaren kasuan, denboran ez datoz bat 2009ko ekitaldian egiten den diru-laguntzaren aurrekontuko izendapena batetik, eta diru-laguntzaren xede den gaiaren egikaritzea, datozen ekitaldietan garatuko dena; honenbestez, emakida konpromisozko kredituen moldea erabilita bideratu behar zatekeen, diru-laguntzaren exekuzioa aurreikusitako exekuzio erritmoari egokituta.

HKEEK 2008ko ekitaldiari buruzko txostenean aztertutako diru-laguntzen gaineko jarraipena egin dugu eta honako hauek azalerratu ditugu:

- 0,1 milioi euroko zenbatekoa egin duen diru-laguntza batean, epez kanpo aurkeztu da justifikazioa eta aurkeztu gabe utzi da jardueren oroitidazkia.
- Guztira 5 milioi euroko zenbatekoarekin emandako hiru diru-laguntza justifikatzeko daude, ezarritako epea behin iraungia dela.

Diru-laguntza izendunak

3.3.3 Honako diru-laguntza izendun hauek aztertu ditugu:

ONURADUNA	Euroak milioikoetan		
	Diru-lag. Hasierak.	Zabalkuntza	GUZTIRA
AZTI Fundazioa	3,4	2,3	5,7
Kalitatea Fundazioa.....	4,6	1,4	6,0
Karrantzako Minda S.L.....	1,0	2,0	3,0
Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa	0,2	0,1	0,3
Basogintza Elkarleen Konfederakundea	0,3	0,8	1,1
Egurraren Sektorearteko Mahaia	,1	3,0	3,1
GUZTIRA	9,6	9,6	19,2



Diru-laguntza hauek zabaldu egin ziren 2009rako EAEren Aurrekontuen 19/2008 Legearen 14.1 artikuluan erabakitakoari jarraiki. Alabaina, laguntzen zabalkuntza emakida aginduetan hasiera batean aurreikusitakoez besteko jarduera osagarriak finantzatzeko gauzatu zen; honek gainditu egiten ditu onuradunarekin hitzartutako finantzaketa mugak, aurrekontu arauaren III: Eranskinaren 17. atalak agintzen duen moduan.

3.3.4 Karrantzako Minda, SLri 320.000 euroko aldez aurreko ordainketa egin zitzaion, onuradunak bermea aurkeztu gabe, 698/1991 Dekretuaren 3.2 artikulua agintzen duen modura.

Lehiaketa publiko bidez emango diren diru laguntzak

Gai berrien garapena sustatzeko emandako laguntzak aztertu ditugu, eta produktu berriztat hartzeko dira jatorrizkoak eta jada merkatuan ditugunaz gainerakoak direnak, merkatuko eta gizartearen demanda hobeto asetzeko (GAITEK programa); laguntza horiek Industria, Merkataritza eta Turismo Sailburuaren 2008ko azaroaren 27ko Aginduaren babesean eman ziren eta 2009ko ekitaldiaren kontura 27,8 milioi euroko zenbatekoa egin zuten; halaber, sare kontzertatuko ikastetxeetan inbertsioak finantzatzeko emandako laguntzak ere aztertu ditugu, titulartasunak kooperatiba edo fundazio moldea duenean (HEZKOOP programa); laguntza horiek hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuaren 2008ko irailaren 2ko Aginduaren babesean eman ziren, 10,8 milioi euroko zenbatekoan, horietatik 1,8 milioi euro 2009ko ekitaldiaren konturakoak dira eta 9 milioi euro, berriz, 2010-2018 ekitaldien kontura.

3.3.5 Gai berrien garapena sustatzeko laguntzei dagokienez (GAITEK programa) beharrezkoa dugu honako hau esatea:

- 2008ko azaroaren 27ko Aginduak, Programa arautzen duenak, ez du onuradunaren obligaziotzat hartzen emakida ebazpena gauzatu baino lehenago Gizarte Segurantzarekiko obligazioetan gaurkotua dagoela egiaztatzea; horrek 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorraren 14.e) artikulua urratzen du, Lege bereko Azken Xedapen Lehenengoaren arabera oinarritzko legeria dena.
- Laguntza hauen deialdia Programa arautzen duen Aginduaren 19.3 artikuluan ezarritako gehienezko epearekiko (6 hilabete) 4,5 hilabeteko atzerapenez ebatzi eta jakinarazi zaie interesdunei.
- Deialdiaren ebazpenean ez da adierazi laguntza eman ez zaien eskabideei uko egiteko arrazoia eta horrek Programa arautzen duen Aginduaren 19.2 artikulua urratzen du.
- Fiskalizatutako espediente bakoitzean txertatzen den proposamenaren analisisa izenpetu gabe dago eta honenbestez, ezin jakin daiteke SPRIren Teknologia eta Berrikuntzarako Unitate Estrategikoak egin duen edo ez, Programa arautzen duen Aginduaren 16.3 artikulua agintzen duen moduan.

Laguntzak emateko 3,2 milioi euro egin dituzten 22 espediente aztertzean eta laguntzak ukatzeko beste bi aztertzean hona hemen azaleratu diren lege haustek:



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- Programa arautzen duen Aginduaren 20. artikulua agintzen du diru-laguntzaren ordainketa bi zatitan gauzatuko dela: %70a, emakida ebazpena jakinarazi ondoren, eta gainerako % 30a, behin programa amaitua dela, aldeztetik frogagarria aurkeztu ondoren. % 70aren ordainketa aurreratua egiteko ez du inongo berme-araubiderik ezartzen eta horrek 698/1991 Dekretuaren 3.2 artikulua urratzen du, EAEn diru-laguntzen berme eta itzulketen araubide orokorra arautzen duena; dekretu horrek bermea eskatzeko obligazioa ezartzen du ordainketa aurreratuak egiten direnean eta diru-laguntzaren zenbatekoa 180.304 eurotik gorakoa denean. Fiskalizatutako deialdian, 7 onuradunek kopuru hori gainditzen duten diru-laguntzak eskuratu dituzte eta horiei emandako diru-laguntzek guztira 1,5 milioi euro egiten zuten.
- Agindu arautzailearen 10.2 artikulua zera agintzen du: “proiektu bakoitzari emango zaion diru-laguntza, onartutako proiektu bakoitzarentzat onetsitako gastu lagungarrien aurrekontuaren gainean eman daitekeen laguntza kopuru handiena izango da (enpresa ertainentzat % 35 arte)”. Guztira 0,2 milioi euroren zenbatekoa egin duten aztertutako espedienteetarik 3tan, bakarkako proiektuei dagozkienak, kopuru handien modura ezarritako ehunekoaren gainetik eman da diru-laguntza (% 40-% 41).
- Laguntzei erabilera zuzena eman zaiela egiaztatzeko gerora egindako kontrola ez da behar hainbatekoa, ez oinarri arautzaileek, ez Sailaren jardunak ez baitute beharrezkoa den dokumentazio osoa eskatu, diruz lagundutako inbertsio eta gastu guztiak egin direla justifikatuko duena. Izaera orokorrarekin eta diru-laguntza ematen duen sailak zehaztutako kopuru jakin batetik aurrera gomendatzen da diru-laguntzaren onuradunak aurkezten duen ziurtagiri ekonomikoarekin batera kontuen auditore baten txostena aurkezteko; auditore horrek Kontabilitate eta Kontuen Auditoriako Institutuaren (ICAC) baitako Kontuen Auditoreen Erregistro Ofizialean jarduneko modura izena emanda egon beharko du. Auditoria egitetik eratorritako gastua diruz lagungarria izan daiteke laguntzen oinarri arautzaileek hala erabakitzen dutenean eta bertan zehaztutako muga arte.

3.3.6 Sare kontzertatuko ikastetxeetan inbertsioak finantzatzeko emandako laguntzei dagokienez, titulartasunak kooperatiba edo fundazio moldea duenean (HEZKOOP programa), zera adierazi behar dugu:

- Hezkuntza Saileko oroitidazkiek ez dute laguntza-lerro hau jasotzen eta honenbestez, ez dute ekintza eta adierazleak zehazteko eta helburuak lortzeko horien eragina islatzen.
- Laguntza hauen deialdia Programa arautzen duen Aginduaren 13. artikuluan ezarritako gehienezko epearekiko (6 hilabete) 2,5 hilabeteko atzerapenez ebatzi eta jakinarazi zaie interesdunei.

Laguntzak emateko 6,3 milioi euro egin dituzten 8 espediente aztertzean eta laguntzak ukatzeko beste bat aztertzean hona hemen azaleratu diren lege haustek:

- Lauaxeta Ikastolari 0,5 milioi euroko laguntzak eman zaizkio 2008ko ekainaren 1a ondoren amaitu diren obrak finantzatzeko dituzten maileguak diruz laguntzeko; eskatzaileak ez du justifikatu obrak amaitzean atzerapena aparteko arrazoiek eragin dutenik, Agindu arautzailearen 3. artikulua agintzen duen moduan.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III.4 KONTRATAZIOA

Txosten hau idatzi dugun datan Gobernuak ez du Kontratuen Erregistrorik, SPKLren 308. Artikuluak eta EAEn Kontratazioaren Araubideari buruzko ekainaren 5eko 5 Dekretuaren 136/1996. artikulua aurreikusten dutena.

Ekitaldi honetan egikaritu diren eta lehenagoko ekitaldietan esleitu ziren 24 espedienteko lagina eta 2009an esleitutako 31 espedienteko lagina aztertu dugu. Aztertutako espedienteen zerrenda A.18 eranskinean dago xehatua.

III.4.1 AURREKO EKITALDIETAN ESLEITUTAKO ESPEDIENTEAK

- 2009ko uztailan Etxebizitza, Herri-lan eta Garraio Sailburuak Barakaldoko Galindo esparruan 59 etxebizitza sozial eraikitzeko kontratua desegin zuen; kontratua 5,4 milioi euroren zenbatekoan esleitu zen (5 zk.ko espedienteak); kontratua desegiteko arrazoia izan zen obren enpresa esleipendunak beharrezko lehia gauzatu behar izan zuela eta ez zituela obrak gauzatzeko behar hainbateko bermeak aurkeztu. Administrazioak behin-betiko bermea bahitu du eta material bilketagatik emandako bermeak gauzatu ditu; berme horiek kontzeptu honen izenean ordaindutako 160.000 euroren erdia estaltzen dute; abal emailek APKLTBren 145.2 artikulua urratu dute. Ebazpen hori errekurritu egin du abal emaileetako batek Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren aurrean.
- Hiru kontratuk (3, 9 eta 24 zk.ko espedienteak) ekitaldian hurrenez hurren 0,8, 0,5 eta 0,8 milioi euroko aldaketak izan dituzte; ordea, aldaketa horiek ez dira osorik beharizan berri edo ezustekoen ondorio eta horrek APKLTBren 101.1 artikulua eta SPKLren 202. artikulua urratzen du. Gainera, 3 zenbakiko espedientearen aldakuntzan, onetsita dagoen arren, ez da agiri administratibo bidez formalizatu eta ez da bermea egokitu; halaber, ez dago Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren nahitaezko txostenik; honek guztiak APKLTBren 42, 59.3 eta 101 artikulua urratzen ditu.
- 10 zenbakiko espedienteak 5,5 milioi euroren zenbatekoan esleitu zen; 2009ko azaroan urtekoak berriz egokitzea onetsi zen; ordea, 2009ko irailean lanak egiteko epea iraungi zen eta epe hori ez zen aldatu, luzatu baino.

III.4.2 2009-AN ESLEITUTAKO ESPEDIENTEAK

- Guztira 9,8 milioi euroko zenbatekoarekin esleitu ziren bi obra kontratutan (30 eta 33 zk.ko espedienteak) proiektuaren zuinketa proiektua onetsi aurretik gauzatu zen eta horrek SPKLren 110.1 artikulua urratzen du.
- Zortzi kontratutan (30, 33, 34, 41, 43, 44, 53 eta 54 zk.ko espedienteak), 7 kontratu 24,8 milioi euroan esleitu dira eta bat aleko prezioetan; horietan guztietan espedienteetan ez da behar hainbat justifikatzen eskaintza egokiena bereizteko hautatu diren esleipen irizpideak, SPKLaren 93.4 artikulua agintzen duen modura.
- Guztira 1,1 milioi euroren zenbatekoan esleitutako bi kontratutan (38 eta 43 zenbakiko espedienteak) oroitidazki justifikagarrian ez dago jaso aurreikusitako kontratuen bidez besarkatu nahi diren beharizanen izaera eta luze-zabal zehatza; ez eta beharizan horiek

asetzeko xedearen eta edukiaren egokitasuna ere; honek SPKLren 22. Artikulua urratzen du.

- Zazpi kontratutan (30, 34, 41, 45, 47, 48 eta 54 zenbakiko espedienteak) ez da ageri APKLAOren 80.5 artikulua eskatutako egiaztageria, jasotako dokumentazioari edo lehiatzaile ezari buruzkoa; kontratu horietako hiru 9,9 milioi euroren zenbatekoan esleitu dira eta lau, aleko prezioetan.
- Guztira 0,6 milioi euroko zenbatekoarekin esleitutako kontratu batean (43 zk.ko espedienteak) espediente bideratzeko presako tramitazioa erabili da; ordea, SPKLren 96.1 artikuluan xedatutakoari jarraiki, ez da behar hainbat justifikatu. Honi dagokionez, Europako zuzentzaruek adierazten duten legez, premia erakunde esleitzailerek aurreikusi ezin izan duten egitateek eragin behar izan dute eta inondik ere ezin dute premia justifikatuko duten inguruabarren erantzule izan.
- Bi kontratutan (43 eta 44 zenbakiko espedienteak), 11,5 milioi euroan esleitutakoetan, eskaintzak balioztatzeko SPKLren 134.2 artikuluan aurreikusitako batzordea eratu behar zatekeen; izan ere, nahiz modu automatikoan neurgarriak ziren irizpideei irizpide subjektiboei baino balio handiagoa eman zitzaien, horiek balioztatzeko finkatutako kalkulu formulak egiazko balio-neurketa txikiagoa izatea eragin dute. Bestalde, Arabako Osasun Barrutiko eta Otxandio eta Ubideko udalerrietako gaixoentzat osasun garraioaren zerbitzua kontratatzean, modu automatikoan neurgarriak diren irizpideek % 10eko balioa zuten arren, ez da eratu aipatutako batzorderik eta ez da berariaz gaitutako erakunde tekniko batengana jo.
- Administrazio-klausula berezien agiriek judizio-balioa egitea eskatzen duten esleipen irizpideak barne hartzen dituzte eta horiei guztira % 80ko haztapena ematen zaie. Ahal den neurrian behinik behin, irizpide hauek azpi-irizpideetan bereiztea komeniko litzateke eta horietako bakoitzari eman zaion puntuazioa jakinaraztea. (25, 26, 27 eta 28 espedienteak).
- Guztira 12 milioi euroren zenbatekoan esleitutako 2 kontratutan (44 eta 54 zenbakiko espedienteak), ez dira adierazi argitaratutako lehiaketa iragarkietan erabili diren irizpideak eta horien balio-neurketa, SPKLren 134.5 artikuluan ezarritakoari jarraiki.
- Berebat, 0,6 milioi euroren zenbatekoan esleitutako kontratu batean, BOEn eta EHAAn argitaratutako lehiaketa iragarkiek ez dute kontratuaren balioetsitako zenbatekoa guztira adierazten, horren balizko luzapenak barne hartuta.
- 1,1 milioi euroren zenbatekoan esleitutako kontratu batean (54 zenbakiko espedienteak) esleipen irizpideen artean enpresaburuaren kaudimen tekniko edo profesionala egiaztatzea zuzendutakoak barne hartzen dira; horrek SPKLren 134. artikuluan xedatutakoa urratzen du, balorazio irizpideak eskaintzari dagozkionak behar dutela izan, eta ez eskaintzaileari dagozkionak esaten baitu.
- Lau kontratuk (31, 36, 40 eta 51 zk.ko espedienteak) esleipen behin-behineko edo behin-betikoa egiterakoan 11 egun eta 3 hilabete bitarteko atzeraldiak izan dituzte eta horrek SPKLren 145 eta 135.4 artikuluetan xedatutakoa urratzen dute; kontratu horietatik hiru, 6,8 milioi euroren zenbatekoan esleitu dira eta bat aleko prezioetan. Guztira 4,7 milioi euroren zenbatekoan esleitutako kontratu bat (46 zk.ko espedienteak) presako modura tramitatu zen; ordea, bi hilabete baino gehiago igaro ziren kontratua abiarazi eta behin-



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

betiko esleitu zen bitartean. Bestalde, 0,6 milioi euroren zenbatekoan esleitutako kontratu batean (32 zenbakiko espedienteak) zuinketa egiaztatzeko akta SPKLren 212. artikulua ezartzen duen gehienezko epearekiko hilabeteko atzerapenez izenpetu zen.

- Bi kontratutan (48 eta 53. espedienteak) -bata aleko prezioetan eta bestea, 0,4 milioi euroan esleitutakoetan-, ez dago erasota esleipen hartzaile guztiek zerga obligazioetan eta Gizarte Segurantzakoetan gaurkotuak daudela erakusten duten ziurtagiriak aurkeztu dituztenik, SPKLren 135.4 artikulua ezarritakoari jarraiki.
- Aleko prezioetan esleitutako kontratu batean (49 zenbakiko espedienteak), ez da ageri esleipena DOUEn eta BOEn argitaratu denik; horrek SPKLren 138.2 artikulua urratzen du.
- Guztira 1,2 milioi euroko zenbatekoarekin esleitutako kontratu batean (42 zenbakiko espedienteak) ez da ageri esleipenaren berri Europako Batzordeari eman zaionik eta hala egiteko agintzen du SPKLren 138.3 artikulua, 0,2 milioi euroko edo kopuru handiagoko zerbitzu kontratuak direnean.
- Guztira 7 kontratutatik (37, 38, 44, 47, 48, 51 eta 52 zenbakiko espedienteak), 3 kontratu 14,8 milioi euroko zenbatekoarekin esleitu dira eta beste 4 aleko prezioetan; horietan guztietan ez da gauzatu Administrazioak egin beharreko harrera edo adostasun ekintza formal eta positiboa, SPKLren 205.2 artikulua agintzen duen eran.
- Hornidurako bi kontratu (47 eta 48 zenbakiko espedienteak) aleko prezioetan esleitu dira eta 2009an milioi bat euroko egikaritza izan dute; horien Oinarri-arau Teknikoen Pleguek agintzen dute lehiatzaileek hornitu beharreko produktuen ziurtagiriak enpresa jakin batek jaulkita aurkez ditzatela; ordea, badira ziurtagiri horiek jaulkitzeko baimena duten bestelako erakunde zein enpresak. Mugaketa hori SPKLren 1. artikulua jasotako kontratazio irizpideen aurkakoa da.
- Premiazko izapidea arautzen duen SPKLren 97.1.a) artikulua agintzen du lanen egikaritza agintzeko erabakiarekin batera aurkez dadila bai dagokion kreditu atxikipena, bai kreditua aldarazteko espedienteari hasiera eman zaiola justifikatuko duen dokumentazioa ere. Barrikan San Valentin dikea konpontzeko kontratuan (35 zenbakiko espedienteak) aipatutako erabakiaz geroztik bi hilabete baino gehiago igaro arte ez da inongo kontularitzako dokumentaziorik jaso eta obrari ekin zitzaionetik hilabete baino gehiago igarota dela; kontratua aleko prezioetan esleitu zen. Bestalde, Gobernu Kontseiluari SPKLren 97.1.b.) artikulua ezartzen duen epearekiko 6 hilabetetik gorako atzerapenez gauzatu zen Gobernu Kontseiluari egin beharreko jakinarazpena.
- Aleko prezioetan eta sortetan esleitutako kontratu batean (36 zenbakiko espedienteak) gordailutako behin-betiko bermeak Administrazio-Klausula Berezien Pleguan agindutakoak baino 340.000 euro urriagoak dira.

III.5 KONTRATU TXIKIAK

Guztira 15,4 milioi euroko zenbatekoa egin duten 624 eragiketari dagozkion gastuak azaleratu dira, lehiaketa bidezko lizitazio bidez kontratatutako gutxienekora iristen ez badira ere, kontzeptu homogeneotan meta litezkeenak eta aleko prezioen arabera hornidura kontratu modura lizitatu zitezkeenak.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Eragiketa hauen zenbatekotik % 92 Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren obra txikiei dagokie eta bereziki gailentzen da kontratista berarekin 3,2 milioi euroko zenbatekoan gauzatutako obra txikien kontratazioa.

Bestalde, espediente berria esleitu bitartean kontratuak iraungi zitzaizkien 17 zerbitzu-emaile edo hornitzaileekin kontratatzen jarraitu da eta guztira 2 milioi euroko gastuak egin dira.

Gobernuak beharrezko diren prozedurak ezarri behar ditu egoera hauek gertatu baino lehenago antzeman eta saihestuak izan daitezen; halaber, iraungitzear dauden hornidura eta laguntza teknikoak esleitzeko izapideak ere behar hainbat aurreratu behar ditu.

III.6 LURRALDEKA BEREIZITAKO GASTUAK ETA SARRERAK

Gobernuak gainbegiratu egin beharko lituzke, batetik, lurraldeka bereizgarri diren gastu kontzeptuak, adiera duten gastuak soilik aintzat hartuz, diru-laguntzak eta inbertsioak esaterako, eta bestetik, gastuak lurraldeka egotzeko irizpidea aldatu, bakoitzaren erakundeak duen gizarte egoitzaren kokalekuaren arabera dena, eta zerbitzua ematen den tokiaren arabera egotzi.

III.7 BESTELAKO ALDERDIAK

- Visesa, S.A. sozietate publikoak (Eusko Jaurlaritzak kapital sozialean % 67ko partaidetza du) Etxebizitza, Herrilan eta Garraio Sailaren beraren bitarteko modura dihardu babes ofizialeko etxebizitza berriak, alokairukoak eta tasatutakoak sustatzeko, SPKLren 24.6 artikulua botere esleitzaileraren bidezko bitarteko izaera eskuratzeko agintzen dituen betekizunak bete gabe.
- “Euskadiko Gobernuaren Funtsa (1936-1979)” izeneko espedientearen analisisian honako alderdi hauek azaleratu dira:
 1. Ez erabakiarekin baterako oroitidazkiak, ez Gobernu Kontseiluaren 2009ko apirilaren 21eko erabakiak berak ere –diru-laguntza zuzena ematen duenak-, ez dute EAEONALen 49.7 artikulua agintzen duen arrazoitzea barne hartzen.
Berebat, ez dago jasoa horretarako eskumena duen Sailak jaulki beharreko txosten juridikoa ere, 14/1994 Legearen 22.1.) artikulua aurreikusitakoa.
 2. Fundazioak egindako gastuen (13.000 eurokoak) balioespenari buruzko azterketa, Ogasun eta Herri Administrazio Sailburuaren 2007ko abenduaren 17ko Aginduaren 7. artikulua urratuta esleitu zen.
 3. Ezin zehaztu izan da Fundazioari ordaindutako zenbatekoaren zuzentasuna.



IV. FINANTZEN ANALISIA

2009ko ekitaldian gertatutako jazoera ekonomiko garrantzitsuena tributu itunduak direla-eta bildutako diru kopuruaren beherakada izan da, 2008ko ekitaldian hasi zena. 2008 eta 2009ko ekitaldietako ekarpenak likidatzeko Herri Dirubideen Euskal Kontseiluari aldundiek aurkeztutako informazioarekin bat, ondoko taulan diru bilketak ekitaldi horietan izan duen bilakaera ikus daiteke:

DIRUBILKETA	Euroak milioietan				
	AURREIKUSPENA 2009	DIRUBILKETA 2009	DIRUBILKETA 2008	DIRUB. DIF. 09/2008 Gordina	%
ZERGA ZUZENAK	6.486,4	5.392,8	6.601,2	(1.208,4)	(% 18,3)
NUIZ	4.463,6	3.917,7	4.458,3	(540,6)	(% 12,1)
Sozietateen Zerga	1.759,9	1.231,7	1.692,2	(460,5)	(% 27,2)
Ez egoiliarren NUIZ.....	171,1	113,6	187,6	(74,0)	(% 39,4)
Oinordetzen zerga	87,2	80,1	81,8	(1,7)	(% 2,1)
Ondare zerga.....	4,6	49,7	181,3	(131,6)	(% 72,6)
ZEHARKAKO ZERGAK	5.889,0	4.644,0	5.150,6	(506,6)	(% 9,8)
BEZ.....	3.744,9	2.759,3	3.173,3	(414,0)	(% 13,0)
Eskualdatze zerga	229,9	152,2	185,1	(32,9)	(% 17,8)
IAJD.....	134,5	95,2	115,6	(20,4)	(% 17,6)
Garraio zerga berezia.....	54,4	37,2	49,2	(12,0)	(% 24,4)
Aparteko zergak	1.586,0	1.475,8	1.497,2	(21,4)	(% 1,4)
Salmenta txikien g/zerga.....	56,2	51,4	53,1	(1,7)	(% 3,2)
Beste batzuk	83,1	72,9	77,1	(4,2)	(% 5,4)
TASAK	111,3	100,9	113,7	(12,8)	(% 11,3)
BEZ DOIKETA	1.217,0	768,9	1.092,2	(323,3)	(% 29,6)
ZERGA BEREZ. DOIKETA	(113,1)	(114,5)	(123,5)	9,0	(% 7,3)
DIRUBILKETA GUZTIRA	13.590,6	10.792,1	12.834,2	(2.042,1)	(% 15,9)
FORU ALDUNDIEN EKARP.	8.848,6	7.077,6	7.896,1	(818,5)	(% 10,4)

Diru kopuru gutxiago bildu dela ikusi da zuzeneko zein zeharkako zergen bidez. Zerga zuzenetan, nabarmen egin du behera NUIZaren eta Sozietateen gaineko Zergaren dirubilketak. Berebat, aipagarria da Ondarearen gaineko Zergaren dirubilketak izan duen beherakada, izan ere Gipuzkoa izan baita 2009ko ekitaldian zerga honen kontzeptuan zerga-ordainketari eutsi zaion toki bakarra. Zeharkako zergetan beheraldia nagusiki BEZak jasan du.



EAEren 2009rako aurrekontu orokorren Oroitidazki argigarria mamitzeko baliatutako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren balioespenek Euskal Autonomia Erkidegoaren BPG 2009ko urtean % 1,5 haziko zela aurreikusten zuten. Ordea, Eustatek emandako datuen arabera, BPG horrek 2009an % 3,8 egin du behera. Hori dela eta, 2009an diru-bilketaren beheraldia Barne Produktu Gordinak behera egin izanak ekarri du batetik, eta 2009ko abenduaren 31n zerga zuzen eta zeharkakoen kontzeptuan Foru Aldundietan kobratzeko dagoen zenbatekoak (1.719 milioi euro) gora egin izanak, bestetik; honek guztiak, 2008ko ekitaldiarekiko % 56ko igoaldia ekarri du.

Administrazio batek etorkizuneko inbertsio programei aurre egiteko duen gaitasuna sarrera eta gastu arrunten egiturak eta finantza zama handiagoa bere gain hartzeko aukerak mugatzen dute.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Ondoko taulan Aurrezki gordinak, emaitza arruntak eta aurrekontu saldoak azken lau ekitaldietan izan duten bilakaera erakusten du:

	Euroak milioietan					
	2006	2007	2008	2009	% 2009/2008	% 2009/2006
Sarrera arruntak (1)	8.183,2	8.944,9	8.347,3	7.405,2	(% 11,3)	(% 9,5)
Zeharkako zergak	6,4	6,3	5,6	4,6	(% 17,9)	(% 28,1)
Tasak eta beste.....	135,4	151,6	155,0	169,8	% 9,5	% 25,4
Transf. eta dirul. arruntak	7.984,1	8.700,0	8.006,7	7.181,8	(% 10,3)	(% 10,0)
Ondare sarrerak.....	57,3	87,0	180,0	49,0	(% 72,8)	(% 14,5)
Gastu arruntak (2)	6.496,1	7.158,3	7.774,8	8.576,6	% 10,3	% 32,0
Langileen gastuak	1.553,9	1.688,3	1.815,1	1.931,0	% 6,4	% 24,3
Funtzionamendu gastuak.....	2.462,0	2.751,9	3.072,0	3.383,8	% 10,1	% 37,4
Transf. eta dirul. arruntak	2.480,2	2.718,1	2.887,7	3.261,8	% 13,0	% 31,5
Aurrezki gordina (3=1-2)	1.687,1	1.786,6	572,5	(1.171,4)	(% 304,6)	(% 169,4)
Finantza gastuak (4).....	42,4	29,1	17,7	24,4	% 37,9	(% 42,5)
Emaitza arrunta (5=3-4)	1.644,7	1.757,5	554,8	(1.195,8)	(% 315,5)	(% 172,7)
Inbertsio garbiak (6)	984,7	1.127,3	1.215,2	1.528,2	% 25,8	% 55,2
Inbertsio errealak	280,4	316,1	317,6	350,7	% 10,4	% 25,1
Transf. eta kapitalezko diru-lag.	634,0	679,8	925,4	1.059,5	% 14,5	% 67,1
Finantza aktiboen igoera.....	134,8	185,1	104,9	232,2	% 121,4	% 72,3
Inbertsio errealen besterentzea	(1,1)	(0,5)	(8,8)	(0,4)	(% 95,5)	(% 63,2)
Transf. eta jasotako kapital diru-lag.	(48,9)	(42,7)	(75,9)	(93,4)	% 23,1	% 91,0
Finantza aktiboen gutxitzea	(14,5)	(10,5)	(48,0)	(20,4)	(% 57,5)	% 40,7
Jaulkitako zor garbia (7)	(183,2)	(216,5)	23,1	1.349,9	% 5.743,3	(% 836,8)
Finantza pasiboaren igoera	0,0	0,0	200,0	1.411,0	% 605,5	-
Finantza pasiboaren gutxitzea.....	(183,2)	(216,5)	(176,9)	(61,1)	(% 65,4)	(% 66,6)
Aurrekontuaren emaitza (8=5-6+7)	476,8	413,7	(637,3)	(1.374,1)	% 115,6	(% 388,2)
Itxiak (9)	20,8	(356,5)	(1,3)	4,8		
Ekitaldiko Aurrekontu Emaitza (8+9)	497,6	57,2	(638,6)	(1.369,3)	(% 114,4)	(% 375,2)

2009ko ekitaldirako hasierako aurrekontuek aurreikusitako diru-sarreretan 493,6 milioi euroko Diruzaintza Geldikinak erabiltzea barne hartu zuten, “Finantza Aktiboen Murrizketa”, 8. kapituluaren barruan. Teniendo en cuenta que estos ingresos no son liquidables, existía un déficit inicial por dicho importe.



Sarrera arruntak azken ekitaldian 942,1 milioi euroan gutxitu dira, nagusiki ondoko arrazoiengatik:


- Foru aldundiek egindako ekarpenak 818,5 milioi euroan gutxitzea, itunpeko zergen dirubilketa urritu izanaren ondorioz.
- Ondare sarrereren murrizketa, batik bat, diruzaintzaren ordainsariak 92,6 milioi euroan egin duelako behera; horren arrazoia da nagusiki finantza etxeekin hitzartutako interes tipoak txikiagoak izatea eta banku kontuetako hileko saldoak ere txikiagoak. Gainera, 2008ko ondare sarrerek Energiaren Euskal Erakundeak Eólicas de Euskadi, SAn zuen partaidetzaren salmenta barne hartzen zuten.

Gastu arrunten igoera aurreko ekitaldikoekiko % 10,3koa izan da, termino absolutuetan 801,7 milioi euroko igoera ekarri duena, batik bat honek eragindakoa:

- Langile gastuak % 6,4 igo dira; kopuru absolutuetan 115,9 milioi euroko igoera suposatzen du, soldata igoera orokorra % 4,2koa izan baita, Itzarriri egiten zaion ekarpenaren igoera % 0,5 osagarria eta 2009ko irailean praktiketan 1.051 funtzionario irakasle laneratu baitira, 2008ko azaroan deitutako Enplegu Eskaintza Publikoan (EEP) hautatutakoak.
- Funtzionamendu gastuek izandako 311,8 milioi euroko igoera. Halaber, osasun gastuak 249,3 milioi euroko igoera izan du eta hori da aipatutako igoeraren zati handiena (% 80). Azpimarratu behar diren beste gastu kontzeptu batzuk honako hauek dira: mehatxupean dauden pertsonen segurtasunera 16,9 milioi euro gehiago bideratu da; eta ikastetxeetan jangeletako gastuak 19,8 milioi euroren igoera izan du.
- Diru-laguntza arrunten igoera, 374,1 milioi euro, sektore publikoaren (%52,3) eta sektore pribatuaren artean (%47,7) banatu da. Sektore publikoan igoera handien izan duten transferentziak honako hauek izan dira: Euskal Herriko Unibertsitateari dagokiona, 18,6 milioi euroan igo dena; SPRI, Sarena, 12,2 milioi euroko igoerarekin eta EITBri egindakoa, 12,6 milioi euroko igoera izan duena. Bestalde, 77,4 milioi euroko zenbatekoarekin gehitu dira Euskal Herriko Toki Erakundeei egindako transferentziak. Sektore pribatuan igoerarik handieneko transferentziak irabazi asmorik gabeko erakundeei zuzendutako haiek izan dira, 112,6 milioi euro gehitu direnak.

DIRUBILKETA, EKARPEN ETA GASTU ARRUNTEN BILAKAERA

Euroak milioietan



Diru sarrera gutxiago izateak eta gastu arruntak areagotzeak, biek batera, aurrezki gordina 1.743,8 milioi euro murriztea eragin dute, 2008ko ekitaldiko emaitzarekin alderatuta. Honek, lehenengo aldiz aztergai izan dugun aldirian, zeinu negatiboa du.


Inbertsio garbiak 313 milioi gehiago izan dira; hona hemen kapitulu aipagarrienak

- Kapital transferentziak: 134,1 milioiko gehikuntza izan dute
- Egindako inbertsioen bolumena 2008ko ekitaldikoaren antzekoa izan da. Honako hauek nabarmen daitezke: haur eta lehen hezkuntzako ikastetxeetan egindako obrak, 76 milioi euro; etxebizitzetan inbertsioa, 56 milioi euro; eta Euskal Y-ren Gipuzkoako zatian egindako obrak, 50 milioi euro.
- Finantza aktiboetan, gastuak 127,3 milioi areagotu dira; aipagarriena SPRI, SAREN kapitalezko zabalkuntza da, 52,4 milioi eurokoa eta Finantzen Euskal Institutua Erakunde Publikoaren funts sozialari egindako 80 milioi euroko ekarpena.

Hasierako defizitak (493,6 milioi euro kitagarriak ez diren aurreikusitako sarrerei dagozkie), sarrerek behera egiteak eta gastuen igoerak 1.374,1 milioi euroko aurrekontu defizita sortu dute, nahiz 1.061 milioi euroko beste zorpetze bat baliatu den.

Hona hemen adierazle nagusien bilakaera:

EMAITZEN, INBERTSIOEN ETA JAULKITAKO ZOR GARBIAREN BILAKAERA Euroak milioikoetan



Hona hemen Diruzaintzako geldikinak eta Gauzatutako Zorpetzeak azken lau ekitaldietan izan duten bilakaera:

	Euroak milioietan					
	2006	2007	2008	2009	% 2009/2008	% 2009/2006
Diruzaintzako geldikina	2.205,6	2.262,7	1.624,1	254,8	(% 84,3)	(% 88,4)
Zuzkidurak eta doiketak (1)	188,2	153,9	137,6	122,8	(% 50,9)	(% 58,9)
Erabili gabeko zorpetzea	1.331,9	941,9	775,0		(% 100,0)	(% 100,0)
Diruzaintza geldikin erabilgarria	685,5	1.166,9	711,5	132,0	(% 78,0)	(% 77,0)
Erabilitako zorra	518,4	301,9	491,9	2.080,8	% 323,0	% 301,4
Erabili gabeko zorra	1.331,9	941,9	775,0	536,0	(% 30,8)	(% 59,8)
Gauzatutako Zorpetzea	1.850,3	1.243,8	1.266,9	2.616,8	% 106,6	% 41,4

Kopuruak 2009ko ekitaldiaren irizpidearen arabera kalkulatu dira (ez ditu pasibo kontingenteengatikozuzkidurak barne hartzen).

EAEren Administrazio Orokorraren egoera ekonomikoak krisi ekonomikoko egoera orokorra islatzen du; aztergai izan dugun aldian sarrera arrunten % 20 baino gehiago zen Diruzaintza Geldikinetik, 2009ko ekitaldian, sarrera arrunten % 3,44 egiten duen Diruzaintza Geldikina izatera aldatu da. Bestalde, erabilitako zorra 1.588,9 milioi euroan gehitu da aurreko ekitaldiarekiko.



Honi dagokionez, 2010eko ekitaldirako hasierako aurrekontuak zorra 2.038 milioi euro gehiago areagotzea aurreikusten du, kapitalezko eragiketak finantzatzeko (inbertsioak eta transferentziak), 1.535 milioi euroko zenbatekoarekin aurrekontu egindakoak eta sarrera arruntan bidez aurre egin ezin daitezkeen gastu arruntak finantzatzeko, 418 milioi euroko zenbatekoarekin. Hala ere, diru bilketan diru gutxiago jaso denez, nahitaezkoa da gastua sarreretara egokitzea, gastuari eusteko eta gastu arruntan aurrezteko politikaren bitartez.

Aurrekontuaren Egonkortasuna

Bai abenduaren 12ko 18/2001 Legeak, Aurrekontuaren Egonkortasunari buruzko Orokorrak, bere 5. Azken Xedapenean, bai aurrekoaren osagarri den abenduaren 13ko 5/2001 Lege Organikoak 1. Azken Xedapenean, biek ere aurreikusten dute eraginkortasunari buruzko lege horietan xedatutakoa Euskal Herriko Autonomia Erkidegoari aplikatzerakoan, Ekonomia Itunaren Legean erabakitakoa kaltetu gabe egingo dela.

EAEren Ekonomia Ituna onesten duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen 48. artikulua Estatuarekiko koordinazioa eta kolaborazioa aurreikusten ditu aurrekontuaren egonkortasunaren gaitan (hirugarren atala). Lege beraren 62. artikulua, bestetik, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren egitekoen artean aurrekontu egonkortasunaren gaitan kolaborazio eta koordinaziorako konpromisoa hitzartzeko egitekoa zehazten du.

Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren lehenengo bilera 12/2002 Legea onetsi ondoren, maiatzaren 23koa, 2005eko urriaren 6an egin zen. Bileraren bosgarren erabakiak Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioaren eta Estatuko Administrazioaren aldeko itaeradun alde aurreko akordioak izenpetzeko aukera ireki zuen, Ministroen Kontseiluan Autonomia Erkideen multzorako aurrekontuari egonkortasuna emateko helburua onartu aurretik.

2008ko abenduaren 30ean egindako bilkuran bi administrazioek egonkortasun helburuak adostu dituzte 2009-2011 aldirako, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak 2010eko urtarrilaren 28an egindako bilkuran baitetsitakoa. Egonkortasunaren helburua BPGren % 0,75eko defizitean ezarri zen, finantzaketa gaitasuneko terminoetan neurtuta, Nazio eta Lurraldeetako Kontuen Europako Sistemari jasotako definizioari jarraiki (SEC-95).

Estatuko Administrazioaren Arterakitzaren Orokorrak kalkulaturako behin-behineko superabita aurrez aipaturako irizpideen arabera, EAEko BPGren % 3,89 izan da.

2009ko ekainean Eusko Jaurlaritzak eta Estatuak egonkortasun eszenategi berria aurreikusi zuten 2010-2012 aldirako, bertan, BPGren gaineko defizit maila % 2,5 izatea aurreikusi zen 2010erako; % 1,7koa 2011rako, eta % 1,3koa 2012rako. Egoera berri honek, 2007ko uztailaren 30eko Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren 8. erabakiaren indarrez, aipaturako aldirako orekako Finantza Plan Ekonomikoa aurkeztea eskatzen du. Plan hori 2010eko apirilaren 23ko bileran onetsi zuten bi administrazioek; ordea, uztailaren 5ean egindako bileran 2010eko ekitaldiari zegozkion neurriak gaurkotu ziren, defizitari jarritako helburu berrira -% 2,4an finkatu zutena- egokitzearen. Bi bileretan eskuratutako erabakiak 2010eko azaroaren 22ko Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak baitetsi ditu.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V. 2009-KO EKITALDIAREN KONTUAK 2009-KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

AURREKONTU ARRUNTA							Euroak milioietan
SARRERAK KAPITULUA	HASIERAKO		B-BETIKO	AITORTUT.	KOBRA.		
	AURREK.	ALDAK.	AURREK.	ESKUBID.	KOBRATUA	GABE	
2 Zeharkako zergak	5,7	-	5,7	4,6	3,7	0,9	
3 Tasak eta bestelako sarrerak (A.8)	66,7	53,9	120,6	169,8	141,6	28,2	
4 Transf. eta dirul. arruntak (A.9)	8.906,7	47,5	8.954,2	7.181,8	6.775,1	406,7	
5 Ondare sarrerak	79,9	0,4	80,3	49,0	45,3	3,7	
6 Inbertsio errealen besterentzea	0,9	-	0,9	0,4	0,4	-	
7 Kapital diru-lag. eta transf (A.10)	563,1	17,4	580,5	93,4	47,0	46,4	
8 Finantza aktiboen gutxitzea (A.11)	503,4	529,0	1.032,4	20,4	13,5	6,9	
9 Finantza pasiboen igoera (A.15)	361,1	214,7	575,8	1.411,0	875,0	536,0	
	10.487,5	862,9	11.350,4	8.930,4	7.901,6	1.028,8	

GASTUAK							Euroak milioietan
KAPITULUA	HASIERAKO		B-BETIKO	AITORTUT.	ORDAIN.		
	AURREK.	ALDAK.	AURREK.	OBLIGAZ.	ORDAINDUA	GABE	
1 Langileria gastuak (A.3)	1.918,8	43,9	1.962,7	1.931,0	1.930,6	0,4	
2 Funtzionamendu gastuak (A.4)	3.234,3	305,1	3.539,4	3.383,8	3.013,5	370,3	
3.- Finantza gastuak	74,0	(13,9)	60,1	24,4	24,4	-	
4 Transf. eta dirul. arruntak (A.5)	3.083,6	261,0	3.344,6	3.261,8	2.685,4	576,4	
6 Inbertsio errealak (A. 6.)	963,5	(80,6)	882,9	350,7	205,9	144,8	
7 Kapital diru-lag. eta transf (A.5)	1.041,1	205,0	1.246,1	1.059,5	582,4	477,1	
8 Finantza aktiboen igoera (A.7)	111,1	142,4	253,5	232,2	231,2	1,0	
9 Finantza pasiboen gutxitzea (A.15)	61,1	-	61,1	61,1	61,1	-	
	10.487,5	862,9	11.350,4	10.304,5	8.734,5	1.570,0	

AURREKONTU ITXIAK (A.12)					Euroak milioietan
	ESKUB. EGITEKE		KOBR./	ESKUB. EGITEKE	
	08.12.31-N		ORDAINK.	BALIOGABETZEAK	09.12.31-N
Sarrerak	964,1	842,0		35,9	86,2
Gastuak	1.491,8	1.192,2		40,7	258,9

KONPROMISO KREDITUAK (A.17)				Euroak milioietan
KAPITULUA	HASIERA URTEA			
	AURREKO URT.	2009	GUZTIRA	
Funtzionamendu gastuak	49,6	149,3	198,9	
Transferentzia eta diru-laguntza arruntak	26,6	130,6	157,2	
Inbertsioak	71,4	297,8	369,2	
Kapital transf. eta diru-lag.	243,5	215,7	459,2	
Finantza aktiboen igoera	348,2	39,5	387,7	
GUZTIRA	739,3	832,9	1.572,2	



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

2009-KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOARI OHARRAK

1. OHARRA.- EAren Administrazioaren diruz lagungarri diren gastuak diru-laguntzak ematen diren unean erregistratzen dira, Euskadiko Aurrekontu Araubidearen Legeak ezarritako irizpideari jarraiki. Irizpide honen ondorioz, 2009ko abenduaren 31n oraindik eskagarriak ez diren ordainketa obligazioak existitzen dira, 538,0 milioi euroko zenbatekoa egiten dutenak.

2. OHARRA.- 1994-2009 aldian jasotako elkarteko funtsek 1.798,9 milioi euroko aitortutako sarrerak sortu dituzte eta horietatik 1.607,3 milioi euro Europar Batasunak ikuskatu ditzake diru sarrera hauek eta ezinezkoa da zehaztea finantzatutako proiektuen berrikuspenak Geldikinaren gainean izan lezakeen eragina. Nolanahi dela ere, iragan esperientzia oinarri hartuta, ez dirudi eragin hori adierazgarria izan litekeenik.

3. OHARRA.- Zorpetze publikoari dagozkion sortutako eta iraungi gabeko interesak, 8,1 milioi eurokoak, urteko kontuetan erregistratzen dira eta ondarearen emaitza ekonomikoaren atal dira (ikus oroitidazkiaren 12.2 oharra). Aurrekontuaren exekuzioak ez du kopuru hau islatzen, izan ere, interesen gastuak kutxa irizpideari jarraiki erregistratzen baititu.

4. OHARRA.- Bizkaiko Garraio Partzuergoaren finantza planak, Bilboko Hiri Trenbidearen inbertsioei buruzkoak Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorrak 2010etik 2027ra bitarteko urteetan 624,7 milioi euroko ekarpena egitea aurreikusten du, urte horietako EAren Aurrekontu Orokorretan kontsignatuko direnak, Partzuergoari ekitaldi bakoitzean egin beharreko transferentziari dagokion kopuruan.



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ZORPETZEA (A.15)	Euroak milioikoetan
SALDOA 08.12.31-N	1.266,9
Zorraren jaulkipena.....	1.411,0
Amortizazioa	61,1
SALDOA 09.12.31-N	2.616,8

2009-KO EMAITZA ETA 09.12.31-N DIRUZAINZTA GELDIKINA	Euroak milioikoetan
Diruzaintza geldikina 08.12.31n	1.624,1
2009ko ekitaldiaren emaitza.....	(1.369,3)
Aurrekontu arruntaren defizita	(1.374,1)
Aurreko urtealdietako eragiketen superabita	4,8
DIRUZAINZTA GELDIKINA 09.12.31-N	254,8

DIRUZAINZTA GELDIKINA GAUZATZEA 09.12.31-N	Euroak milioikoetan
DIRUZAINZTA (A.13).....	1.196,6
KOBRAZTEKOA	1.145,4
Indarreko ekitalditik kobratzeko dauden eskubideak.....	1.028,8
Ixitako ekitaldietatik kobratzeko dauden eskubideak (A.12).....	86,2
Aurrekontuz kanpoko zordunen saldoak (A.14).....	30,4
ORDAINTZEKOA	(2.087,2)
Indarreko ekitaldiko ordaintzeko dauden obligazioak	(1.570,0)
Ixitako ekitaldietako ordaintzeko dauden obligazioak (A.12).....	(258,9)
Hartzekodunen aurrekontuz kanpoko saldoak (A.14)	(258,3)
DIRUZAINZTA GELDIKINA 09.12.31-N	254,8

DIRUZAINZTA GELDIKIN ERABILGARRIA 09.12.31-N	Euroak milioikoetan
Diruzaintza geldikina 09.12.31n	254,8
Eraginpeko geldikina:	
Ikastetxe publikoen geldikina.....	(39,2)
Aitortutako eskubideen kontzeptuko gorabeherak, hauei dagozkienak:	
Emandako maileguak	(25,4)
Exekutututako abalek eragindako erreklamazioak.....	(14,3)
Betearazte-bidean dirubilketa	(43,9)
DIRUZAINZTA GELDIKIN ERABILGARRIA 09.12.31-N	132,0



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

BALANTZEA ETA GALERA ETA IRABAZIEN KONTUA

09-12-31-N EGOERAREN BALANTZEA

Euroak milioikoetan

AKTIBOA	2009	2008	PASIBOA	2009	2008
IBILGETUA (A.20)	4.195,8	3.881,0	FUNTS PROPIOAK	1.365,7	3.725,5
Erabilera orokor. emandako inberts.....	37,7	38,0	Ondarea.....	(369,3)	(355,3)
Ibilgetu ezmaterialak.....	75,3	73,4	Aurreko ekitaldietako emaitzak	4.080,9	4.534,9
Ibilgetu materialak	2.476,9	2.309,4	Ekitaldiaren emaitzak.....	(2.345,9)	(454,0)
Ibilgetu finantzarioak	1.470,9	1.322,5	HAINBAT EKIT. BANATZ. GAST.	233,5	232,1
Epe luzeko zordunak.....	135,0	137,7	ZUZKID. (ikus erantsitako oharra)	93,6	112,4
HAINBAT EKIT.BANATZ.GAST.	5,5	0,9	HARTZEKODUNAK, EPE LUZERA	2.139,5	562,5
AKTIBO ERABILKORRA	1.736,9	3.003,0	HARTZEKODUNAK, EPE LABUR.	2.105,9	2.252,3
Zordunak e/lab.....	516,0	141,3			
Inbertsio finantzario iragankorrak.....	24,3	221,1			
Diruzaintza (A.13).....	1.196,6	2.640,6			
AKTIBOA GUZTIRA	5.938,2	6.884,9	PASIBOA GUZTIRA	5.938,2	6.884,9

2009-KO EKITALDIAREN GALERA-IRABAZIEN KONTUA

Euroak milioikoetan

ZOR	2009	2008	HARTZEKO	2009	2008
GASTUAK			DIRU-SARRERAK		
Langileria gastuak (A.3).....	1.931,0	1.815,1	Salmentak eta zerbitzuen emakida.....	9,6	7,7
Amortizaziorako zuz. Ibilgetua (A.20).....	111,5	109,2	Zerga sarrerak.....	22,4	23,4
Zuzkiduren aldaketa.....	(19,0)	(13,9)	Transferentziak eta diru-lagun. (A.9).....	7.271,8	8.071,7
Transferentziak eta diru-laguntzak	4.378,9	3.830,7	Bestel. kudeaketa sarrerak	155,1	107,8
Bestelako ustiaketa gastuak	3.381,5	3.071,2	USTIAKETA GALERAK	2.324,9	601,7
Gastu finantzario eta antzekoak.....	27,4	16,5	Kapitaleko partaidetzen sarrerak.....	-	59,6
Finantza inbertsioen zuzkid. aldaketa.....	47,6	48,1	Bestel. interesak eta antzeko sarrerak	41,8	131,8
Kanbio diferentzia negatiboak	-	0,1	Finan. eratorritako. eragiketeng. sarr.	4,9	3,2
Finan. eratorritako. eragiketeng. gastuak	7,5	8,3	FINANTZA EMAITZA NEGATIBOAK.....	35,8	-
FINANTZA EMAITZA POSITIBOAK	-	121,6	JARDUERA ARRUNT. GALERAK	2.360,7	480,1
Ibilg. mat.,ezmat.eta kontr.k. erat. galer.	2,4	20,9	Ibilg. mat.,ezmat.& kontr.k. erat. irab.	1,4	4,7
Gastu bereziak.....	16,4	6,8	Ekit. emaitzara aldat. kap. dirulag.	5,4	11,8
Aurreko ekitaldietako gastu eta galerak	36,0	34,6	Aparteko diru-sarrerak.....	15,8	9,5
APARTEKO EMAITZA POSITIBOAK.....	14,8	26,1	Beste ekit. batzuetako sarr. eta mozk.....	47,0	62,4
			EKITALD. EMAITZAK (GALERAK)	2.345,9	454,0



OHARRA: ARRISKU ETA GASTUETARAKO ZUZKIDURAK

Abalek edo abian dauden auziek eragindako balizko zein egiazko erantzukizunak, pasibo horiek azaleratzen diren ekitaldiaren emaitzen aurka hornitzen dira, zenbatekoaren balioespen arrazoizkoaren arabera. 2009ko abenduaren 31n zenbatekoa 93,6 eurokoa zen.

Berebat, "Gobernu Legea"ri buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legeak, 38. artikuluan agintzen du biziarteko pentsioa eskuratzeko eskubidea izango dutela, beti ere hirurogeita bost urteak beteak badituzte, 1936ko urritik 1979ko abenduaren 15era arte Eusko Jaurlaritza osatu zuten Lehendakariak eta Sailburuek, iraungia den Euskal Kontseilu Orokorraren Lehendakari eta Kontseilariak eta ondotik izan diren Autonomia Erkidegoko Gobernuetako Lehendakari, Sailburu eta Sailburuordeek; azken hauek, gainera, gutxienez bi urteko zerbitzu aldia osatua izan beharko dute.

Bestetik, maiatzaren 13ko 1/1986 Legegintzako Dekretuak, Euskal Administrazio Autonomoari zerbitzu eman zien langileen eskubide profesional eta pasiboari buruzko testu bateratua onesten duenak ezartzen du, 1936ko urriaren 7tik 1978ko urtarrilaren 6ra bitarteko aldiaren Eusko Jaurlaritzaren agindu eta destino bidez Euskal Administrazioan edo bestelako administrazio zein antolakuntzetan urtebetekoa baino txikiagoa ez den denboran zerbitzuak izaera ohiko eta jarraituarekin eman zituzten funtzionario eta administrazio edo lan kontratupekoek, erretiroagatik pentsioa jasotzeko eskubidea izango dutela.

Azkenik, Ertzaintzako langileriarri ezargarrria zaion araudiak pentsioen osagarri diren aldizkako prestazio ekonomikoak jasotzeko eskubidea aitortzen du, zerbitzualdian heriotza gertatzen deneko hainbat kasutan edota zerbitzualditik eratorritako ezgaitasunagatik nahitaezko erretiro kasuetarako.

2009ko abenduaren 31n ez da kontzeptu hauen izenean inongo zuzkidurarik erregistratu.

Bi kontzeptu horien ordainetan 2009ko ekitaldian Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorrek bere langileekiko legezko obligazioengatik egindako ordainketak 2,5 milioi eurokoak izan dira.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ADMINISTRAZIO OROKORRAREN 2009-KO EKITALDIKO FISKALIZAZIOAREN EMAITZEI JARRITAKO ALEGAZIOAK

I. HITZAURREA

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren fiskalizazioaren 2009ko ekitaldiko emaitzei erantzute aldera, otsailaren 5eko 1/1988 Legearen 13. artikulua betez, txosten honetan aipatutako gaiari buruz kudeaketa-organo bakoitzak egoki iritzi dituen eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoak zentralizatu dituen alegazioak eta justifikazioak bildu dira.

II. IRITZIA

II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

1. *Sektore publikoko fundazio eta partzuergoen integrazioa.*

Ohar horren arabera, badirudi HKEEK ondorioztatu duela euskal sektore publikoaren osaera aldatzeak nahitaez dakarrela aurrekontu orokorren integrazioa aldatzea, hori osatzen duten erakunde guztiak sartu behar direla, bai eta sektore publikoko fundazioak eta izaera bereko partzuergoak ere. Administrazio hau ez dago ados interpretazio horrekin; bere ustez, Eusko Legebiltzarrak Euskadiko Aurrekontu Araubidearen araudia aldatzen ez duen bitartean, horixe izango da hitzez hitz eta erabat jarraitu beharreko araua aurrekontu orokorrak egiteko zein bidezko kontuak egiteko.

Euskadiko Aurrekontu Araubideari buruz indarrean dagoen legearen 2.2 artikuluan adierazitakoaren arabera, bertan zerrendatutako erakundeek bakarrik osatzen dituzte EAEko aurrekontu orokorrak. Beraz, euskal sektore publikoaren osaera ogasun ondoretarako aldatzeak ez du zuzeneko eraginik aurrekontu orokorren eta bidezko kontuaren integrazioan.

Izan ere, lege orokorraren aurretik (Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legea) arau berezia (Euskadiko Aurrekontu Araubideari buruzko Legea) nagusitzen dela dioen espezialitate-printzipioaren ondorioz, ez dago inolako araudi-inkohereziazirik, Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legea (EAEHNAL) aldatzeak ez duelako eragin Euskadiko Aurrekontu Araubideari buruzko Legea (EAAL) adierazi gabe indargabetzea.

Bi legeek helburu ezberdinak dituzte eta, ondorioz, ez dira baztertzailak, baizik eta bateragarriak. Horrela bada, EAEHNALk euskal sektore publikoaren definizio orokorra ezartzen du, eta beste lege batzuek zehazten ez dutenean eta kontzeptua modu orokorrean aipatzen dutenean aplikatu daiteke. Hala ere, ezin da aplikatu, kasu honetan bezala, sektore publikoa osatzen duten erakundeetatik zeintzuk aipatzen dituen zerrendatzen duen legea dagoenean. Hori dela eta, arau bakoitzak “berariazko balio-eremua” dauka bakoitzak diziplinatzeke asmoa duen ondoretarako. Ez da bi arauen arteko talkarik egon, nahiz eta arau biek termino berbera (“sektore publikoa”) erabiltzen duten eduki ezberdinarekin.

Era berean, kontuan izan behar da legeriaren asmoa EAEHNALn ezarritako sektore publikoaren osaera berria ogasunari buruzko beste arau batzuekin bat etortzea izan zenean, beren-beregi adierazi zuela bidezko aldaketaren bitartez (14/1994 Legea, kontrol



ekonomikoari eta kontabilitateari buruzkoa, eta 8/1996 Legea, EAEko finantzei buruzkoa). Bertatik ondoriozta daiteke EAALren 2.2 artikulua aldatu ez izana bertako edukia ez aldatzeko jakinaren gainean egindako legegintza-erabakia izan zela, eta ez beste esanahiren bat izan dezakeen ez aipatze hutsa soilik.

2. Lurraldearen araberako sailkapena

Euskadiko Aurrekontu Araubideari buruzko Legearen 57. artikuluan adierazitakoa betez, Autonomia Erkidegoko Aurrekontuak lurraldearen araberako sailkapena eginda prestatzen dira, 57. artikuluan aurreikusten diren aurrekontuak prestatzeko arau teknikoetan bildutako irizpideekin bat etorritik.

Behin aurrekontuak Legebiltzarrean onetsita, lurraldearen arabera ere gauzatzen dira.

Ondorioz, 57. artikuluan xedatutakoa bete da, aurrekontu-programen egiturak lurraldearen araberako sailkapena barneratzen baitu.

3. Banakako enpresaburuentzako, autonomoentzako eta enpresa txiki eta ertainentzako urte anitzeko finantzaketa-lerroa.

Finantzaketa-lerro honen alderdi berrietako bat, Finantza Laguntzaren Programan parte hartzen duten finantza-erakundeekin egindako hitzarmenen bitartez artikulatuta, erakunde horiei beharrezko likidezia bermatzeko kontu bereziak irekiko direla da. Kontu berezi horiek Euskal Herriko Diruzaintza Nagusiari buruzko azaroaren 30eko 211/1997 Dekretuaren 5. artikuluan daude araututa.

Finantza-erakunde horiei, EBBen abalarekin, onuradunen alde mailegu eta kredituak eman ahal izateko likidezia nahikoa ematearren, titulartasun publikoko kontu korronteak eratu dira hitzarmena sinatu duten erakundeetan, eta emandako maileguen baliokideak diren zenbatekoak transferituko dira, epe berdinekin, Eusko Jaurlaritzaren ageriko kontuetatik kontu horietara. Kontuek autonomia-erkidegoko Administrazioaren titulartasunekoak izaten jarraitzen dutenez, nahiz eta saldoak mantentzeko konpromisoarekin, funtsen mugimendu horiek, ez dutela jabetza lekualdatzea eragiten, ez dute eraginik aurrekontuetan. Izan ere, ez dute gastu-konpromisorik ez hirugarrenenganako ordainketa-betebeharririk eragiten. Horri dagokionez, ikusi Euskadiko Aurrekontu Araubideari buruzko Legearen testu bategineko 111. artikulua nola definitzen dituen “ordainketa egin beharra” eta “gastuen egingarritasuna”.

Gainera, Auzitegiaren txosteneko A.13 atalean adierazita dagoen bezala, Finantza Laguntzaren Programari atxikitako kontu horiek guztiak Jaurlaritzaren gainerako kontu korronteen baldintza berberetan daude ordainduta.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

4. Lutzana-Munoan (Barakaldo) 39 etxebizitza eta eranskinak eraikitzeo obrak.

Sustapenaren 2. aldaketak, obraren azken ziurtagiriaren aurretik, obra egin bitartean egin beharreko lanak azaltzen zituen, eta horien artean zegoen urbanizazio-arloa zabaltzea, Barakaldoko Udalak eskatuta.

Obrak premiazkoak zirelako egin behar izan ziren lanak, eta ohiko izapidearekin eragingo litzatekeen geldiketa eragotzi zen horrela. Bada, Gobernu Kontseiluaren 2010eko otsailaren 16ko batzarrean baimendu zen ordainketa.

Gainerako aldaketek eraginak dituzte fatxadaren eraikuntza-sisteman, egiturari, barruko banaketa-sisteman, eta elektrizitate, berokuntza eta etxeko ur beroaren instalazioetan.

Fatxada aireztatuaren ordez ohiko fatxada ipiniko da, bistako adreiluzko akaberarekin. Izan ere, egokiagoa dela uste da, bai duen berezko kalitatearen ikuspegitik eta bai etorkizunean mantentzeko ikuspegitik ere. Aldaketaren ondorioz, fatxadako habeak sendotu, arotzeriako dimentsioak birdoitu, modulazioz, eta isolamendu-estaldurak inplementatu behar izan dira, azken hori zubi termikoaren ondorea txikiagotzeko.

Egiturari dagokionez, fatxadako habeak sendotzeaz gain, noranzko bakarreko forjaketa-sistema erdi-industrializatua kendu eta horren ordez solairu osoa enkofratuta duen *in situ* forjaketa-sistema ipini da, egikaritze-segurtasunak hala behar duelako. Aldaketa egin behar dela aprobetxatuta, berriro konfiguratu dira 7 eta 8. forjaketak, horien bazterrak handituz eta, ondorioz, bazterreko habeak kendu eta hobeto kudeatu dira terrazetako forjaketa-jauziak. Halaber, beheko solairuan okupatutako azalera handitu da, beste instalazio-areto bat izateko, bero-ponpa berriak eta geotermiako energia-sistema iraunkor berritzailea ipintzeko bertan.

Energiari dagokionez ere, aldaketa garrantzitsuak egon dira. Berokuntzako eta etxeko ur beroa ekoizteko sistema berritzailea ipini da, energia geotermikoa aprobetxatzen duten bero-ponpen bitartez egiten den ekoizpen termiko zentralizatuan oinarrituta. Berokuntzarako lurzoru erradiatzailearen sistema erabili da erradiadoreen ordez. Hori guztia Leako antzeko unitate mikroprozesatuen bitartez kontrolatzen da. Era berean, aldaketak egin dira elektrizitate eta iturgintzaren kapituluetan, aipatutako aldaketaren ondorioz.

5. Ollarganen (Arrigorriaga) 54 etxebizitza eta eranskinak eta 20 garaje eraikitzeo obrak.

2006ko irailaren 6an onetsi zen teknikoki egikaritze-proiektua, lur-zatiaren nahitaezko txosten geotermikoa duela.

Alboko sustapen batean lur-jausia eragin zenez, beste azterlan geotermiko bat eskatu zen, baina ez zen emaitza bereziki berririk lortu.

Hala ere, guneko auzokideengandik zeharka eskuratutako informazioen ondorioz, hirugarren azterlan bat egin zen. Bertan egiaztatu egin zen arriskutsuak izan litezkeen meatze-galeriak zeudela eta, ezegonkorrak zirenez, obrak behin betiko etetea komeni zela.

Hori guztia zela eta, proiektuko hutsengatik erantzukizunak eskatzeko jarduerarik egin behar ez zela ondorioztatu zen.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

6. Bilbo Zaharreko 1. eta 2. eraikinetan 25 eta 30 etxebizitza sozial eta eranskinak eraikitzeko obrak.

Enpresa adjudikaziodunak kalte-ordainak eskatu zituen obren zati bat aldi baterako eten zelako. Hori oinarri hartuta, 2009ko abenduaren 22an, Gizarte-etxebizitzaren Zuzeneko Sustapen Zerbitzuak bidezko txostena idatzi zuen eta, bertan, zenbait zuzenketa egin ondoren, azaldu zen eskaera zuzena zela ondorioztatu zen.

Txosten hori kontratistak emandako dokumentazioa oinarri hartuta idatzi zen, bertan zehatz azaltzen zela jasandako kaltea.

Txostena eta eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioa 2009ko abenduaren 23an izapidetu zitzaion Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saileko Zerbitzu Zuzendaritzako Aholkularitza Juridikoari, eta erreklamazioa egokia zen aztertzen zuen irizpena eskatu zitzaion.

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2010eko urtarrilaren 13ko Aginduaren bitartez, obren zati bat aldi baterako eten izanagatik kalte-ordaina arestian azaldutakoaren arabera onetsiko zela ebatzi zen.

7. Hondarribiko Beteranoen kaia antolatu eta birmoldatzea

Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren txostenak ez ditu zalantzan ipintzen hori eragin duten arrazoiak, baizik eta bere zenbatekoa, kontratua desnaturalizatu egiten duela uste duelako. Hala ere, zenbatekoa handiegia dela uste arren, obrak geldiarazteko alternatiba (alboko aireportuarekin sortutako arazoaren ondorioz) onartezina zela ondorioztatu zen, alde batetik egoera horiek atzerapen handia eragiten dutelako eta, bestetik, ez zuelako bermatzen zure administrazioarentzat ekonomikoki abantailatsua zenik. Gaur egun obra amaituta eta entregatuta dago, arrakastaz, aurreikusitako zerbitzu eta gozamen publikorako.

8. Artxiboa eraikitzea Gasteizko Zubibarri kalean

Kontratua gauzatu bitartean hondakinen kalifikazioa aldatu zen. Administrazioak enpresa adjudikaziodunari emandako karakterizazio-txostenean inerte gisa zeuden sailkatuta eta, aldiz, azkenean “hondakin ez arriskutsuak” kalifikaziokoak izan ziren.

Hondakinen ingurumen arloko kalifikazioa aldatzeak kostu erantsi bat eragin zion enpresa adjudikaziodunari hondakindegian uzteko kanonetan.

2009ko otsailaren 24ko ebazpenaren bitartez erabaki zen 113.521,09 euro ordainduko zitzaizkiola adjudikaziodunari hondakinen kalifikazioa aldatu izanak ekarritako kostu-gehikuntzak eragindako kalteengatik, SPKLren 198.2 artikuluan oinarrituta.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

9. “Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioarako Giza Baliabideen sistema ezartzea eta zerbitzu osagarriak ematea” helburu duen zerbitzuen kontratua

Txostenean bertan adierazi denez, “2010eko abuztuaren 20an, Justizia eta Herri Administrazioako sailburuaren ebazpenaren bitartez, kontratua bi aldeen adostasunez suntsiarazteko prozedura hasi zen”. Hori dela eta, prozedura hasteko data fiskalizazio-txostenaren denbora-eremutik kanpo dago eta, gure ustez, ez litzateke 9. atal hau sartu behar txostenean. Hori guztia alde batera utzita, honakoa ikusi da:

- “ez da zehaztu egindako gastuaren zein guztizko ehuneko aprobetxatu ahal izango den, gastu horren zati handi bat kobraezina izan baita eta, ondorioz, ez dira eraginkortasun eta efizientzia irizpideak errespetatu”

Gobernu Kontseiluak, 2011ko martxoaren 15eko batzarrean, baimena eman zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioarako Giza Baliabideen sistemarako SAP HCM, Portal eta BW arloak ezartzeko kontratua egiteko, aurreko proiektuarekin jarraitzearen. Halaber, Justizia eta Herri Administrazioako sailburuaren 2011ko maiatzaren 30eko Aginduaren bitartez adjudikatu zen zerbitzuen kontratu hori.

Bestalde, 2011ko maiatzaren 27an egin zen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioarako Giza Baliabideen sistemarako espedienteen kudeatzaile elektronikoa ezartzea eta zerbitzu osagarriak ematea helburu zuen kontratua adjudikatzeko proposamena.

Kontratu biak aurretiaz suntsiarazitako proiektuekin jarraitzeko ziren eta, beraz, bi horien azterketa-fasea amaitutakoan, eta ez lehenago, zehaztu ahal izango da aurretiaz gauzatutako gastuaren zatiren bat kobraezina izan den ala ez.

Aurreko lanaren zati handiena aprobetxatzearen, kontratu bien Baldintza Teknikoen Agirik honakoa azaltzen dute betebeharren artean:

“Aurreko etapa batean sistema berriaren garapenaren zati bat egin zen baldintza-agiri honetan adierazten diren zehaztapen bereberekin. Berrero erabili ezean, idatziz justifikatu beharko da (txosten baten bitartez), eta Eusko Jaurlaritzaren Proiektuaren Zuzendaritzaren onspena jaso”.

10. Orioko portuko zutoin oholez egindako kaia sendotzea

a) Adjudikatzeko prozedura:

2009ko otsailaren 23an, Portu eta Itsas Gaietako zuzendariak, SPKLren 154, e) artikulua babespian kontratazio honetarako prozedura negoziatua hautatu izana eragin zuten arrazoiak azaldu zituen. Txosten horretan aipatu zen neguan, kaiko arkugaineran metatutako eurien ostean, arrakalak ireki zirela zoladuran eta itsaslabarreko habeetan. Arrisku handiko egoera horretan, kontratazio-epeak laburtu nahi izan ziren, ahal zen neurrian eta legeak ematen dituen aukeren barruan. Horrelaxe ulertu zuen espedientearen izapideak egin zituen kontratazio-organoak.

b) Epea luzatzea:



Obra amaitzeko epea otsailaren 12ra arte luzatu zen, aurreikusitako etekinei eragin zieten klima arrazoiengatik. Behar bezala dokumentatu ziren kontratistaren eskaeran (meteorologiako erregistroak ere aipatuta), eta behar bezala justifikatu ziren obra-zuzendaritzaren txostenean. Gogoan izan behar da kaiko ur-xaflaren mailek eraginak dituztela obra egiteko orduan.

11. Teknopolis

Aipatu den 60.000 euroko diru-laguntzaren onuraduna Elhuyar fundazioa da. Izan ere, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, 2009ko apirilaren 7an, izendun diru-laguntza eman zion Teknopolis telebista-saioa euskaraz eta gaztelaniaz egiten laguntzeko, bitarteko propioak eta besteen bitartekoak erabiliz. Justifikazioa behar bezala erregistratu zen diruz lagundutako jardueren eta epe horretan egindako jardueraren memoria zientifiko eta ekonomikoetan.

Elhuyar Fundazioaren xedea hau da: Zientziaren eta teknologiaren alorrean zabalpen, sustapen, ikerketa, garapen eta berrikuntza ekintzak burutzea eta sustatzea; halaber, euskara erabat garatzeko prozesuan (nola normalizazioan hala estandarizazioan) aholkularitza, zabalpen, ikerketa, garapen eta berrikuntza lanak egin eta bultzatzea, euskal gizartea eleanitza dela kontutan hartuta. Aipatutako helburuak lortzearren eta ikerketa bultzatzearen, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak fundazioaren kide fundatzailea izatea erabaki zuen.

Fundazioaren helburuak garatzen laguntzearren eta egiten duen lanari babes ekonomikoa ematearren, lankidetzeta-hitzarmena sinatu zuten Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eta Elhuyar fundazioak. Bertan lankidetzaren xedeak eta irismena azaldu ziren, bai eta jarduerak garatzeko, finantzatzeko eta segimendua egiteko prozedurak ere.

Bestalde, 2009ko urriaren 1ean zerbitzuen administrazio-kontratua sinatu zen Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren eta aipatutako fundazioaren artean, Teknopolis saioaren 37 programa egiteko.

Kontratu horretan ezarritakoari jarraituz, oinarri teknikoen agirian dakarren bezala, nahitaez egin behar da Teknopolis programa guztietan, bai eta programa sustatzeko ekitaldi guztietan ere "Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren aipamen esplizitua, programaren babeslea dela aipatuz".

Horrenbestez, beste erakunde batek egin beharreko jarduera babesteko helburua duen kontratua denez, egokia da publizaterik gabeko prozedura negoziatua erabiltzea, eta horregatik da ezinezkoa lehia sustatzea, ageriko arrazoiengatik. Era berean, ez dago inolako bateraezintasunik Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak emandako diru-laguntzaren eta Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak sinatutako kontratuaren artean.

Beste alde batetik, ez da ulertzen 2009ko apirilaren 7an emandako diru-laguntza batek nola ekar dezakeen 2009ko urriaren 1ean (ia sei hilabete geroago) sinatutako kontratu baten prezioa aldatzea.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

12. Osasun-itunak

A) Etxez etxeko dialisia Bizkaiko Osasun Barrutiko gaixoentzat.

77/1997 Dekretuak aipatzen duen funtzionamendu-baimena ez da idatziz jaso deialdiaren oinarrietan ez zelako eskatzen (administrazio-klausula berezien eta oinarri teknikoaren agiriak), Osasun eta Kontsumo Sailak osasun arloko zentro, establezimendu eta zerbitzuak baimentzeko aplikatutako irizpidearekin bat etorrira. Bertan ezarritakoaren arabera, etxez etxeko zenbait osasun-zerbitzuek ez dute osasun-baimenik behar eta, horrenbestez, ezin dute baimenik jaso. Hona hemen: erakunde batean ere sartuta ez daudenak (osasun-zentroa zein osasun arlokoa ez den erakundea), erreferentziazko instalazio finkorik izan gabe (1277/2003 Errege Dekretuan “osasun-zerbitzuari” buruz azaltzen den definizioa) eta, ondorioz, sortu eta funtzionatzeko aurretiazko administrazio- eta osasun-baimenak eskuratzea behartzen duten baldintzak ezarrita izan gabe.

Horrek ez du esan nahi funtzionatzeko legezko baldintzarik ez dagoenik: gogoan izan “osasun-jarduera” denez (osasun-baimeni buruzko araudian ezberdinduta dago “osasun-zerbitzuetatik”), jarduera ekonomikoari buruzko (JEZ...) eta baliabideak izateari buruzko oinarriko betekizunez gain, espedientearen helburua ematean eragindako osasun-produktuen fabrikazio- eta merkaturatze-baimenak ere agertzen direla espedientearen. Erakunde adjudikaziodunek euren instalazioetatik kanpo ematen dute osasun-jarduera eta, beraz, osasun arloko “zentro” edo “zerbitzu” kontzeptuetatik kanpo geratzen dira jarduera horiek.

“Etxez etxeko” dialisiak ez dauka dialisia eman dezaketen bitartekoen antolaketari buruzko sailkatutako erreferentziarik indarrean dagoen araudian. Horrenbestez, ez da sortzeko eta funtzionatzeko aurretiazko baimenik behar.

77/1997 Dekretuak “zerbitzua” aipatzen duenean (2. artikulua), “jarduera” adierazten du, eta ez “antolaketa”, eta ezin da termino absolutuetan interpretatu, indarrean dagoen araudiak baimenen arloan ezarritakoaren kontra ere eginez. Halaber, 4.8 artikulua ere aipatu behar da, baimena ematen baitu, oinarri teknikoaren agiriaren bitartez, eska daitezkeen baldintzak definitzeko, horiekin egingo dela jarduera.

B) Osasun-garraioa Arabako Osasun Barrutiko eta Otxandio eta Ubide udalerrietako gaixoentzat.

Baimena, osasun-garraioari dagokionez, anbulantziek eskuratu behar duten “teknika- eta osasun-ziurtagiria” izenekoa da, eta hemen dago araututa: Lurreko Garraioen Antolamenduari buruzko Legearen Erregelamendua garatzeko 1998ko irailaren 3ko Agindua, IV. kapitulua (215. zenbakiko BOE, 1998ko irailaren 8koa).

Urriaren 10eko 1.277/2003 Errege Dekretuak osasun-zentroak, -zerbitzuak eta – establezimenduak baimentzeari buruzko oinarri orokorrak ezartzen ditu (254. zenbakiko BOE, 2003ko urriaren 23koa), eta “osasun-zentro” gisa aipatzen ditu osasun-garraioko ibilgailuak (C.2.5.7: Osasun-laguntzako zentro mugikorak: osasun-jarduerak egiteko giza baliabideak eta bitarteko teknikoak eramaten dituzten osasun-zentroak). Osasun-baimen hori



ekitaldi berean ematen da arestian aipatutako “teknika- eta osasun-ziurtagiriarekin” eta, horrenbestez, egokiagoa da “osasun-baimena eta teknika- eta osasun-ziurtagiria” esatea.

Bada, adjudikaziodunarenak diren anbulantzia guztiek zituzten, lizitazioa eman zen datan, bidezko osasun-baimena eta teknika- eta osasun-ziurtagiria.

13. Bizkaiko Lurralde Historikoan egonaldi luzeko ospitaleratze psikiatrikoa emateko kontratua

Kontrataturako erakundean indarreko homologazioa zeukan, bai eskaintza egiteko momentuan bai eta behin-behineko adjudikazioa egin zen momentuan ere. Behin betiko adjudikazioa egin zenerako indarraldia amaitu zen arren, Administrazio kontratatzaileak, interes publikoaren onerako, ezin zuen kontratazioa geldiarazi. Bestela gorabehera larriak eragingo lirateke eman beharreko zerbitzurako, formala baino ez zen eta garrantzi praktikorik ez zuen alderdiak bakarrik justifikatuta. Beraz, ezin zen erabaki hori hartu. Izan ere, gogoan izan behar dira honakoak:

- Prozedura negoziatua da, zerbitzua ematen duen beste erakunderik ez dagoelako.
- Zerbitzua eteteak arazo larriak ekarriko lituzke zerbitzua jasotzen duten gaixoentzat eta, halaber, sail kontratatzailearen erantzukizuna izango litzateke.
- Homologatuta egoteko baldintza erakunde bakoitzaren gaitasun eta kaudimen tekniko nahikoak bermatzeko da, administrazio-kontratuen araudiaren arabera. Ikuspegi hori kontuan hartuta, homologazioaren indarraldi formala indargabetzeak ez du esan nahi benetako gaitasunik ez dagoenik. Kasu horretan ez litzateke egongo erakunde lizitatzailearen gaitasuna zalantzan ipiniko lukeen inolako elementurik. Izan ere, urte bereko uztailean formalizatu zen homologazioaren bidezko berrikuntza.

Hori guztia dela eta, Administrazioak behar bezala jardun zuen funtsezko zerbitzu publiko baten jarraitutasuna bermatzeko, premia-arrazoi nabariak zeudelako, berdintasun-, publizitate- eta lehia-printzipioei eragiten ez zielako, eta homologaziorik ez izatea behin-behineko egoera zelako. Beraz, oro har, egoeraren larritasunarekin proportzionatuta zegoen neurria izan zen (horri dagokionez, ikusi Europako Batasuneko Justizia Auzitegiaren 2007/06/14ko C-06/05 epaia, 60. atala eta hurrengoak).



14. Kontratu txikiak

A) Ikastetxeak.

Gaur egun 538 ikastetxe publiko daude Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mende. Horietatik 470 haur-hezkuntza, lehen hezkuntza, derrigorrezko bigarren hezkuntza, batxilergo eta hezkuntza berezikoak dira. Gainerako 68 ikastetxeak erdi-mailako edo/eta goi-mailako lanbide-heziketakoak dira.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko hiru lurralde-ordezkaritzek egindako kontratu gehienak udako oporretan egin beharreko zenbateko txikiko obrak izan dira. Ekaineko azken astearen eta iraileko lehenengo astearen bitartean egin dira gehienak, eraikina hutsik egon denean.

Obra horiek beharrezkoak dira ikastetxeetan haur-hezkuntzako eta lehen eta bigarren hezkuntzetako ikasle berrien eskolatzeko-beharrizanei erantzuteko. Eskolara hasiko diren ikasle berri batzuek minusbaliotasun motorrak dituzte, eta gurpil-aulkiak behar dituzte mugitzeko bai eta, kasu batzuetan, elikatzeko esparru eskusiboak ere.

Ikasle berrien kopuruari buruzko informazioa ikasturteko matrikulazio-fasea amaitutakoan jakiten da, maiatzeko lehenengo egunetan.

Udal-barrutiak edo ikastetxeen eragin-eremuak beste modu batera planifikatzearen ondorioz, matrikula gehiago egoten dira ikastetxeetan eta maila ezberdinetan, eta horrek eskolatzeko-beharrizana berriak eragiten ditu. Ondorioz, egungo eraikinetan dauden lekuak egokitzeko obrak egin behar izaten dira: ikasgela berriak, ikasgeletarako erabilitako barruko guneak banatzeko doikuntzak, banaketa-gelen beharrizana, jantokiak handitzea, arkitektura-oztopoak kentzea (igogailuak, aldapak, ezinduentzako bideak orubearen barruan, ezinduentzako komunak egokitzea solairu guztietan...), etab.

Prestakuntza-ziklo berriak sortzearen ondorioz, guneak eta instalazioak ere egokitu behar izaten dira: horniketa eta saneamendua, energia elektrikoa, datu-sareak (Premia sarea), etab.

Hiru hilabete baino ez dira egoten obra horiek guztiak egiteko, hasten direnetik irailaren 7ra arte, egun horretan hasten baita jarduera ikastetxeetan.

Obra txiki horiez gain, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak beharrezko konponketak egiten ditu autonomia-erkidegoaren jabetzako bigarren hezkuntzako ikastetxeetan, eraikinen barruko instalazio eta barrutiak konpontzeko ikasleak urte amaierako eta Aste Santuko oporretan dauden bitartean.

B) Portuak.

Urtean zehar hainbat kontratu egiten dira Zuzendaritza honetan, batzuk urpeko lanak izaten dira, eta beste batzuk zolaketa-obrak, urbanizazioa, instalazio elektrikoak, barandak, elektrizitatea... Gainera, geografikoki sakabanatuta daudenez (15 portu itsasertzeko 250 kilometrotan banatuta), eta jarduerak denbora edo urtaro ezberdinetan egiten direnez, obra txikiko espediente ugari egin behar izaten dira, eta ezin izaten dira obra-proiektu edo kontratazio bakar batean elkartu. Horren adierazgarri da horrelako lanen adjudikaziodun izan diren enpresak ere asko eta ezberdinak izan direla.



C) Euskadiren Estatu Batuetako Ordezkaritza.

Estatu Batuetako nazionalitatea zuen erakunde instrumental batek egin zuen kontratazioa, eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen lehenengo xedapen gehigarriak atzerriko kontratazioaren inguruan aurreikusten dituen betekizun bereziak bete ziren, baita 1) ataleko d) letran xedatutakoa ere.

16. Fondo dokumentalaren kudeaketagatiko konpentsazioa.

Erabilitako figura juridikoari akordioan emandako izendapena alde batera utzita, espedientean erabilitako justifikazioa, Akordioaren oinarria zena, kalteak ordaintzeko betebeharrak egotean zegoen oinarritua, kontabilitateari dagokionez egoki egotzi zitzaioela Gastuen aurrekontuko II. kapituluari. Gauzak horrela, negozio juridikoaren benetako oinarria gailendu behar da alderdiek ematen dieten izendapenaren gainetik.

18. Zuzeneko diru-laguntzak

A) Diru-laguntzak Confebask, Tecnalia fundazioa eta IK4ri, ikertzaile zientzialariak eta teknologoak lanean hasteko enpresetan eta teknologia-zentroetan.

Ekimen honek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarentzat lehentasunezko interesa duten hainbat helburu lortu nahi ditu, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuan sail horri esleitutako zereginen esparruan. Izan ere zientzia alorreko politikaren eskumenak (teoria eta aplikazio mailako ikerketak sustatzea eta koordinatzea) esleitzen zaizkio dekretu horretan, eta Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuordetzari esleitzen dizkio zeregin horiek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen irailaren 14ko 233/2010 Dekretuak.

Hain zuzen ere, 19. artikuluko n) letrak honakoa esleitzen dio: Zientzia-eta teknologia-garapena sustatuko du interes orokorraren onurarako, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailarekin batera egintzak ezarriz, eta Sail horri edo beste Sail batzuei dagozkien eskumenen kaltetan izan gabe. Halaber, honakoa dago esleituta u) letran: Ikerketa eta teknologiaren garapenerako politiken gidalerro orokorrak landuko ditu, lehentasuna duten arloak zehaztuko ditu, zientzia-eta teknologia-helburuak definituko ditu eta ikerketa eta teknologiaren garapenerako urte anitzeko planak landuko ditu. Era berean, honakoa dago ezarrita v) letran: Ikerketa-programa eta proiektuen, giza baliabideen aukeraketa eta prestakuntzaren eta azpiegiturak sortzearen alorrean ikerketa eta teknologia-garapenerako planen egikaritzea egokirako beharrezko tresnak diseinatuko ditu, bai eta horiek ebaluatzen dituzten tresnak ere, alor horretan Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailari dagokion eskumenaren kaltetan izan gabe.

Bada, aipatutako dekretu horrek honakoak esleitzen dizkio Zientzia Politikarako Zuzendaritzari 21. artikuluko a) eta i) atalen artean: laguntza eta diru-laguntzen deialdiak



ezarri eta definitzea, eta ikerketa-programetako formula berriak proposatzea, sistemak eta zientzia-komunitateak berrikuntzaren erronkei eta aurre egin diezaieten.

Aipatutako diru-laguntzaren izapideak 1/1997 Legegintza Dekretuaren 49.5 artikuluan ezarritakoaren babespean egin dira, jarraian azaldutakoa oinarri hartuta:

- Salbuespena da, eta interes publikoko, gizarteko, ekonomiako edo giza arloko arrazoi nabariak.

Neurri honek autonomia-erkidegoak eta, oro har, gizarte osoak gaur egun bizi duen krisi ekonomikoaren ondorioak arintzen lagundu nahi du, langile adituak laneratuz enpresa eta teknologia-zentroetan, ikertzaileen prestakuntza duten gazteak lanean hasteko I+G+b sailak sendotzen.

- Ezin da deialdirik egin xedapen orokorren bitartez.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak diru-laguntzen inguruko araudia dauka, eta bere helburua Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan egiten diren ikerketa-ekintza bereziak finantzatzeko laguntzak arautzea eta laguntza horien deialdiak egitea da. Hala ere, diru-laguntza horiek ez datoz bat neurri honek lortu nahi duen helburuarekin.

Proiektu zehatza da, eta beraz ez da komeni diru-laguntzen alorrean indarrean dagoen araudia aldatzea edo beste bat egitea.

Beste alde batetik, enpresetan eta enpresa-elkartetan ikertzaileak eta teknologoak kontratatzeko diru-laguntzen deialdi publikoa egin da, Ikertu programa arautzen duen Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo sailburuaren Aginduaren bitartez araututa. Bertan aipatzen da helburu bakarra dela giza kapitala prestatzeko eta sustatzeko ekintzak berritzeko deialdia egitea. Horrenbestez, deialdi hori ez dago irekita enpresetan eta teknologia-zentroetan ikertzaile eta teknologo berriak sartzeko, baizik eta birziklatze profesionalerako. Beraz, helburu osagarriak dira, baina ez datoz bat diru-laguntza horren helburuekin.

- B) Diru-laguntza EITB ente publikoari, herrialde pobretuentzako lankidetzak-laguntzak ekoitzi eta komunikabideetan hedatzeko.

Honakoak dira diru-laguntzaren helburuak:

- Herrialde pobretuen garapenerako lankidetzak-laguntzak sustatu, bultzatu eta hedatzea euskal herritarren artean, berariazko programazioa ezarriz EITB taldearen komunikabideetan.
- Euskal gizartea sentibilizatu eta kontzientziaztea herrialde pobretuetako egoeraren inguruan, eta lankidetzaren eta garapenerako laguntzaren alorrean dauden ekimenen berri ematea herritarrei.

GLSFren dekretuan dauden tresnen artean hitzarmena hautatu da proiektuaren idiosinkrasiaren ondorioz. Ez da ohiko parametroen araberakoa, eta ez ditu dekretu arautzaileak eskatutako baldintzak betetzen. Espedientean egiaztatu egin da bete egiten



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

direla Garapena eta Lankidetzaren Sustatzeko Fondoaren kargurako proiektuetarako laguntzak arautzen dituen otsailaren 27ko 34/2007 Dekretuaren xedapen gehigarrian azaldutako eskakizunak. Agindu horrek aukera ematen du batera finantzatzeko hitzarmenak egiteko, proiektuaren subjektuagatik edo izaeragatik ezin denean GLSFren kargurako lankidetzaren proiektuen deialdi publikoan parte hartu (gorabehera hori aurrez arrazoitu behar dute), betiere aurrekontuak horretarako aukera ematen badu. Hona hemen:

“Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek Hegoaldeko herrialde pobretuen aldeko garapen-proiektuak batera finantzatzeko hitzarmenak ezarri ahal izango ditu GLSFren kargura, Estatuko Administrazioarekin, autonomia-erkidegoekin, foru-aldundiekin, udalekin, Europako eskualdeekin eta zuzenbide publiko edo pribatuko beste pertsona juridiko batzuekin. Hori hala egingo da, proiektuaren subjektuagatik edo izaeragatik aurreko kapituluetan araututako deialdi publikoan parte hartu ezin badute (gorabehera hori aurrez arrazoitu behar dute), betiere aurrekontuak horretarako aukera ematen badu. finantzatzeko hitzarmen horiek Jaurlaritzaren Kontseiluak onartuko ditu, eta orotarako beren xedapenen arabera arautuko dira.”

Kasu honetan aurreikusitako jarduerak ezin dira deialdi publikoan sartu, 600.000 euro baino gehiagoko zenbatekoa duten proiektuek ezin baitute bertan parte hartu, otsailaren 27ko 34/2007 Dekretuaren 6.1.d artikuluan ezarritakoaren arabera.

Hori guztia dela eta, diru-laguntza eta berau gauzatzen duen hitzarmena 2009ko martxoaren 25ean onetsi zituen GLSFren Kudeaketa Batzordeak.

19. Zuzeneko diru-laguntzak

A) Diru-laguntza UHUN Bergara fundazioari, “Pentsamendua XXI” proiektua garatzeko.

Eusko Jaurlaritzak hartutako akordioaren bitartez, diru-laguntza eman zitzaion UHUN Bergara fundazioari 2009 eta 2010eko ekitaldietan proiektua garatzeko. Horren ondorioz, honako jarduera hauek egin behar izan ziren, hitzarmenean azaldutakoari jarraituz:

- a. Partaidetzarako metodologia baten diseinua, koordinazio eta partaidetzako mekanismo formalak barne izanik.
- b. Lan-programaren diseinu orokor bat, urteka mugaturik. Edonola ere, programak Proiektuaren egitura, ekintzak eta bere metodologia eta jarraitu beharreko pausoak, foroan antolakuntza eta edukien eta emaitzen jakinarazpena izan behar ditu barne.
- c. Ebaluazio jarraitu baten sistema diseinua, dagokion adierazle-taula gainean sistematizatua, Globalizazio Aroan Munduan Euskadi eta euskaldunaren Etorkizuneko Analisisien laborategi bat sortzeko.

Hitzarmenean adostutako helburuak lortzearren, UHUNek lankidetzarako merkataritza-akordioa sinatu zuen enpresa batekin, idazkaritza teknikoaren lanak egin zitzaion eta aurreikusitako ekintzak gauzatzeko bitarteko materialak eta giza baliabideak eman zitzaion.

2009ko ekainean Lehendakarietzako eta UHUNeko ordezkarien artean egindako batzarrean, egun horretara arte egindako jarduerak aztertu ziren. Bertan erabaki zuten, alderdi biak ados



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

zeudela, jarduerak emateko erabili zen modua, beste enpresa batek guztiz ematea, ez zela egokiena hitzarmenean aurreikusitako helburuak lortzeko. Horrenbestez, lankidetzaz hori amaitu eta aurreikusitako jarduerak aurrerantzean UHUNek berak kudeatuko zituela erabaki zen.

Era berean, ordura arte garatutako lan-ildoak ebaluatu ziren, eta beste modu batean orientatuko zirela erabaki zen, hitzarmenean aurreikusitako helburuak indargabetu gabe, jardura dibertsifikatuagoak egiteko. Halaber, ordura arte kanpo ekintzan eta diasporaren eremuan egin izan ziren jarduerak amaitutzat emango zirela ere erabaki zen.

B) Diru-laguntza Errenteriako Udalari, San Marko gotorlekuaren balioa handitzeko.

Fiskalizazio-txostenean azaltzen dena ez bezala, prozedura izapidetu bitartean, Kultura Sailak justifikatu egin zuen salbuespenezkoa zela eta zuzeneko diru-laguntzaren interes publikoko arrazoiak zituela, eta deialdia ezin zela xedapen orokorraren bitartez egin. Hain zuzen ere, honakoa argudiatu zen sailaren justifikazio-memorian horri buruz:

- Proiektu hau ekonomia eta enplegua bizkortzeko inbertsio publikoa dinamizatzeko erakunde arteko “Euskadi Aurrerantz” akordioaren barruan zegoen, inbertsio-proiektu berezi gisa eta autonomia-erkidego osoan zituela ondoreak.
- Proiektuaren tamaina eta interes publikoko arrazoi nabariak kontuan hartuta, beharrezkoa zen San Marko gotorlekuaren balioa handitzeko egindako esku-hartzeetan laguntzea.
- Ez zegoen inolako deialdirik horrelako azpiegitura-gastuak finantzatzeko.

Azaldutako arrazoiez gain, denboran jarraipenik izango ez zuen proiektu edo programa bat zela justifikatu zen, 2010. urtean amaituko zelako. Hori dela eta, deialdi orokor baten bitartez egiteak ez luke zentzurik izango.

C) Diru-laguntza Gasteizko Udalari, Kongresu, Erakusketa eta Arte Eszenikoen Jauregia eraikitzea finantzatzeko.

Egia da kultura arloko ekipamendu eta azpiegituretarako laguntzak oro har arautu daitezkeela eta, horrela, beste onuradun batzuei aplikatu ahal izango litzaizkieke. Hala ere, ez dago argi egokia den. Kultura Sailak, oro har, ez ditu kultura-azpiegituretarako diru-laguntzak ematen, kasu gutxi batzuetan bakarrik ematen ditu, hau da, proiektuaren garrantzia dela-eta laguntza behar bezala justifikatuta dagoela uste denean bakarrik, eta horixe da kasu honen egoera. Oro har, kultura-azpiegiturak eraikitzeke diru-laguntzak beste sail batzuetako partiden pentzura ematen dira, ekipamenduak eraikitzearekin lotura handiagoa duten ekintzak gauzatzen dituzten sailen partiden pentzura. Kultura Sailaren funtsak, aldiz, sailaren helburu nagusirako erabiltzen dira, hau da, kultura-jardueren garapenari laguntzeko, eta oso gutxitan erabiltzen dira jardura horiek hartzen dituzten azpiegituretarako.

Kasu berezi horietan, hala ere, proiektu batzuen garrantzi estrategikoak edo tamainak Kultura Sailaren laguntza osagarri bat justifikatzen dutela uste da, betiere azpiegitura horietan garatuko diren jarduerak zalantzarik gabe kultura-arlokoak izango direla kontuan



hartuta. Kasu honetan horrelaxe jardungo zela erabaki zen, salbuespen moduan. Laguntza honen zenbatekoa handi samarra denez, zaila da laguntza hau eta beste gutxi batzuk estaltzeko moduko kultura-azpiegiturak diruz lagunduko lituzkeen diru-laguntzen deialdi orokor bat justifikatzea, eta ez litzateke eragingarria izango.

20. Herri Dirubideen Euskal Kontseiluaren 2010eko otsailaren 12ko 6. akordioa.

Honakoa dio, hitzez hitz, Herri Dirubideen Euskal Kontseiluaren 2010eko otsailaren 12ko 6. akordioak:

“Aipatzekoa da 2009ko ekitaldian Gipuzkoako Lurralde Historikoan bakarrik mantendu dela ondarearen gaineko zerga.

Kontuan hartu dira horrek baliabideak banatzeko eredian eta ekarpenak zehaztean dituen eraginak.

Kontuan izan dira 2009ko ekitaldia ixtean egondako azken emaitzak, eta aintzat hartu da inguruabar horrek erakunde bakoitzean duen eraginari proportziozko ekarpena egiteko irizpidea.

1. Eusko Jaurlaritzak 8.097.710 euroko ekarpena egingo du, Arabako Foru Aldundiak 307.620 eurokoa, eta 7.375.100 eurokoa Gipuzkoako Foru Aldundiak, Bizkaiko Foru Aldundiari 15.780.430 euro ordaintzeko.”
2. 2010eko otsaileko lehenengo hamabostaldian ordainduko da zenbateko hori.”

1. Bizkaiko Foru Aldundiari egindako konpentsazioa banatzeko erabilitako irizpidea akordioan bertan dago azalduta. Hona hemen:

“Kontuan hartu dira horrek baliabideak banatzeko eredian eta ekarpenak zehaztean dituen eraginak.

Kontuan izan dira 2009ko ekitaldia ixtean egondako azken emaitzak, eta aintzat hartu da inguruabar horrek erakunde bakoitzean duen eraginari proportziozko ekarpena egiteko irizpidea.”

2. Hain zuzen ere, Administrazio Orokorrak laguntzeko dituen arrazoen oinarri juridikoa ez dago akordioaren testuan azalduta, Herri Dirubideen Euskal Kontseiluaren akordioak idaztean erabili ohi denaren antzera (ikus Ekarpenen likidazioa onesteko akordioa, aztertzen gabiltzan honen aurrekoa). Baliabideen banaketarako eta foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko 2007-2011 aldian aplikatuko den metodologiari buruzko martxoaren 23ko 2/2007 Legean aurkitzen dugu hori. Izan ere, seigarren xedapen gehigarrian aurreikusitakoaren arabera, bertan ezarritako metodologia indarrean dagoen artean ekitaldi bakoitza amaitzean foru-erakunderen baten edo batzuetan ekonomiako eta finantzetako desorekak agertzen badira, erakundeotako bakoitzak



baliabideen banaketa-ereduan duen pisu espezifikoaren eraginez, Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak hori zuzentzeko beharrezko neurriak hartuko ditu.”

21. Irakaskuntzako kooperatibentzako eta fundazioentzako laguntzak, ikastetxeetako inbertsioak finantzatzeko (HEZKOOP programa).

Auzitegiaren adierazpenei dagokienez, Administrazio honek uste du ez dela aipatutako deialdiaren lehia murriztu, eta berdintasunez eman dela bertan parte hartzeko aukera. Deialdia helburu zehatz baterako egin zen, hau da, inbertsioak finantzatzeko kooperatiben edo/eta fundazioen titulartasuna zuten ikastetxe hitzartuetan. Kooperatiben arloko eta hezkuntzari buruzko legeek diote gure gizartearen eremu horiek sustatu egin behar direla, eta horixe da, hain zuzen ere, Aginduak lortu nahi zuena, zioen azalpenean zehaztu zen bezala. Hainbat kasutan finantzatu dira aurretiaz egindako inbertsio edo gastuak, eta horrek ez du lehia murriztu, esaterako prestakuntza-planak edo hezkuntza-jardueretarako diru-laguntzak, eta Agindu honetan azaldutakoa horien antzekoa da.

Bestalde, lehenengo aipatu den ikastetxeari dagokionez, aipatu beharra dago Aginduaren helburua dela hezkuntza-erabilerarako higiezin eresketa finantzatzea “edo” eraikitzeko, handitzeko, ordeztzeko eta legetan ezarritako betekizunei egokitzeko obrak egitea. “Edo” ipini denez, Aginduan azaldutakoaren arabera diruz laguntzeko moduko jardueren aukera zabala zehaztu da.

Ikastetxe horren kasuan, elkarren segidan egin ziren jarduera bi finantzatu ziren, diru-laguntza eskatzeko formularioan islatuta dagoen bezala. Higiezina erosi ondoren, obrak egiteko jarduerak egin ziren, eta obrak amaitu zireneko data hartu da kontuan, hau da, 2008. urtea.

22. GAITEK 2009 programa.

Ikerketa teknologikoko proiektu horien izaera dela eta, eta enpresak etengabe garatzen duenez ikerketa-jarduera, proiektuaren aurretiko faseak eta helburu eta emaitzak lortzeko beharrezko osteko faseak egon litezke. Hala ere, deialdi bakoitzean erakunde eskatzaileak proiektuari dagokion aurrekontua aurkezten du, edo ekitaldian garatuko duen proiektuaren fasearena, eta deialdi bakoitzean ebaluatzen da norgehiagoka.

Programa arautzen duen aginduaren 12.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, eskaerak aurkezteko epea hasi ondoren hasi behar dira proiektuak, laguntzaren efektu pizgarria bermatzearen. Gure ustez baldintza hori bete egin da, eta ez dira diruz laguntzeko modukotzat onartuko egun horren aurretik eragindako gastuak.

Halaber, laguntzaren efektu pizgarria eragiten dela ziurtatzeko, erakunde eskatzaileek aitortpen bat bete behar dute, honakoa adieraziz: I+G+b alorreko jardueraren zein alderditan izan duen laguntzak efektu pizgarria, proiektuaren tamaina, aplikazio-eremua edo gauzatzeko erritmoa nabarmen handituz, edo I+G+b proiektuetan gastatutako guztizko zenbatekoa nabarmen handituz.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

II.2. ADMINISTRAZIO OROKORRAREN KONTUARI BURUZKO IRITZIA

2. Formalizatutako maileguak, 2009ko abenduaren 31n ipini gabe

2009ko abenduaren 31n formalizatu ziren 350 milioi euroko maileguak, 2010eko urtarril eta otsailean ipini zirenak, 2009ko abenduaren 31n diruzaintzan zegoen gerakinekoak dira.

Ez dira deskontatu erabilgarri zegoen diruzaintzako gerakinetik, ondorioztatu zelako ez zirela epe oso laburrean gauzatuko, eta halaxe izan da. Hain zuzen ere, honako epe hauetan ipini ziren maileguak:

- 2009/12/21eko mailegua, 45 milioi eurokoa.....2010/01/07
- 2009/12/21eko mailegua, 30 milioi eurokoa.....2010/01/07
- 2009/12/22ko mailegua, 100 milioi eurokoa.....2010/01/07
- 2009/11/24ko mailegua, 175 milioi eurokoa.....2010/02/02

Horrenbestez, ez dagoenez inolako zalantzarik maileguak ipini izanari buruz eta hurrengo ekitaldiko lehenengo egunetan egin dela jakinda, diruzaintzako gerakinean doikuntzarik egin behar ez dela ondorioztatu da.

Horrek ez du esan nahi irizpidea aldatu denik beste ekitaldi batzuekin alderatuz. Izan ere, ipini gabeko maileguen ondorioz erabilgarri dagoen diruzaintzako gerakinaren doikuntzak Urteko Kontuak egin direnean mailegua ipini gabe egon denean egin izan dira, edo ez zenean jakiten noiz ipiniko zen; salbuespenen bat egon da, egin eta epe laburrean ipini zela orduan.

III. BARNE-KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO GOGOETAK.

III.2. LANGILERIA-GASTUAK.

3.2.3. Unibertsitateaz kanpoko irakasleen seiurtekoak arautzeko sistema

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak kontuan izan ditu Auzitegiaren gomendioak, Unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzeko akordioaren edukia aldatzeko. Hurrengo ekitaldietan egin ahal izango du Auzitegiak testu berriaren edukiari buruzko fiskalizazioa.



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

3.2.4. *Antzinasun-osagarria*

Indarrean dagoen uztailaren 6ko 6/1989 Legean azaltzen den emankortasun-osagarriaren definizioa zabala denez, aukera dago, negoziazio kolektiboaren eta bertan lortutako akordioen bitartez, emankortasun-osagarriaren beste definizio batzuk emateko, Administrazio Publikoko sektore bakoitzerako ordainsari-eredu berezko eta bereizi bat osatu ahal izateko.

3.2.5. *Ertzaintzako lan-baldintzak arautzeko akordioa*

Euskal Autonomi Erkidegoko 1998. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 21/1997 Legeak (Hutsen zuzenketa, 10. zenbakiko EHAA, 1998ko urtarrilaren 16koa) ezarritakoaren, honakoa dio Euskal Herriko Poliziaren Legearen 74. artikulua:

“1.- Euskal Herriko Polizia osatzen duten Kidegoetako funtzionarioen lansarien egitura eta araubidea Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen III. Idazpuruko VII. Atalburuan ezarritakoak araupetuko ditu, Ertzaintzaren Kidegoari ezartzekoak diren honako zehazpen hauekin:

2.- Eusko Jaurlaritzak, Ertzaintzaren izaera eta zeregin mailako berezitasunak direla-eta, araudi bidez ezarriko du aipatu Kidegoko funtzionarioen ordainsari-araubidea”.

Bestalde, Euskal Herriko Poliziari buruzko Legearen 103. artikulua 3. zenbakiak aurreikusitakoaren arabera, bertan araututa dagoen Ertzaintzaren Negoziazio Mahaiaren eremuan “Autonomi Elkarteko Administrazioaren aginpideei buruz, hauexek izango dira negoziazio-gaiak”, besteak beste: “Lansariak gehitu, zehaztu eta gauzatzea, eta lansarien arauketa egokitzea”.

Antzinasunagatiko ordainsaria kalkulatzeko moduari dagokionez, Ertzaintzako funtzionarioen ordainsariei buruzko abenduaren 16ko 298/1997 Dekretuak, beste ordainsari batzuen artean, eta Fiskalizazio Txostenean aipatutakoei dagokienez, honakoa aurreikusten du 2. artikuluan: “Oinarritzko ordainsarien zenbatekoak Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorretan agertu beharko dira eta zenbateko horiek Funtzio Publikoari buruzko Legearen aplikazio eremuaren barruan dauden funtzionarioentzat ezarritakoak izango dira, dagokien sailkapen taldearen arabera”. Halaber, aldi baterako xedapenetatik lehenengoak, 2. atalean, oinarritzko ordainsariak zehazten ditu (soldata eta hirurtekoak eta 1997rako zenbatekoak).

Abenduaren 16ko 298/1997 Dekretuak ezarritako ordainsari-erregimena 1997. urtean ezarri zen (horrelaxe ezarri zuen aldi baterako xedapenetatik lehenengoak, 1. atalean). Hala eta guztiz ere, Euskal Herriko Poliziako langileen 1996. urterako lan-baldintzak arautzeko akordioaren 39. artikulua aurreikusitakoaren arabera, langile horien ordainsariak “Jaurlaritzaren Kontseiluaren akordioz bakarrik zehaztuko dira, bai kontzeptuei, bai zenbatekoei dagokienez”. Halaber, honakoa aipatzen da I. eranskineko 1.1 atalean: “Hirurtekoak osatzeko, edozein herri administrazioan guztira lanean emandako denbora zenbatuko da, lan hori karrerako edo bitarteko funtzionario moduan, nahiz administrazio zuzenbide edo lan-itunpeko langile moduan. Aurrekoa baino titulazio altuagoko Kidego batera



sartzen diren langileek talde berri horri dagokion hiru urtekoengatikoko diru kopurua jasoko dute.” 1996ko uztailaren 23ko 188/1996 Dekretuaren bitartez onetsi zen Akordio hori.

Gauza bera dio abenduaren 27ko 438/2005 Dekretuak 2005., 2006. eta 2007. urteei dagokienez Ertzaintzako langileen lan-baldintzak araupetzeko akordioa onartzen duenean, eta indarrean jarraitzen du.

Goragoko kategoria edo eskalako lanpostuak zerbitzu-eginkizunetan egiteagatik ekoizgarritasun-osagarriari dagokionez, Euskal Autonomi Erkidegoko 1998. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 21/1997 Legearen 72.5 artikuluan azaldutakoa eduki beharko da kontuan. Lanpostu batean aritzeko, hornitzeko modua edo titulua edozein dela ere, funtzionarioak nahitaez bete beharko ditu lanpostuen zerrendan eskatutako betekizunak. 72.4 artikuluan aipatzen den kasua ez da lan-baldintzak arautzen dituen akordioko 57. artikuluan aurreikusitakoa bezalakoa (zerbitzu-eginkizunetako funtzionarioak betekizunak betetzen dituen lanpostuan aritzeko zerbitzu-eginkizuna). Hala ere, 72.5 artikulua aipatzen dituen zerbitzu-eginkizunak, besteak beste, esleituta dituzten lanpostuetako titularrek egoeraren arabera bete ezin dituzten zereginak egiteko dira, hainbat inguruabarren ondorioz izan daitezkeela, esaterako goragoko kategoria eta eskalak dituzten lanpostuak betetzeko ezintasuna, lanpostuok betetzeko eskatzen diren kategoria eta eskala duten langileak ez daudelako, hau da, lanpostuak betetzeko kategoria eta eskalari buruzko betekizunak betetzen dituen langilerik ez dagoelako. Horixe da lan-baldintzak arautzen dituen akordioaren 57. artikulua aipatzen duen kasua.

Aurreikuspen horiek garatuz, Euskal Herriko Polizia Kidegoetako Funtzionarioen Lanpostuen Hornidurari buruzko Araudia onesten duen abenduaren 22ko 388/1998 Dekretuaren 26. artikulua zereginak aldi baterako esleitzeagatik zerbitzu-eginkizunak aipatzen ditu. Halaber, 2. atalean, Euskal Herriko Poliziari buruzko legearen 72.5 artikulua egiten zuen bezala, lege-testu bereko 74.1.b) artikulua bigarren paragrafoari lotzen zaio, ordainsariei dagokienez. Beraz, 72.5 artikuluan azaldutako kasuetan, haborokinak jasotzeko modua periodifikatu ahal izango da zerbitzu-eginkizunak egitean.

Ertzaintzako funtzionarioen ordainsariei buruzko abenduaren 16ko 298/1997 Dekretuaren 5. artikulua ekoizgarritasun-osagarria arautzen du: “Ekoizgarritasun-osagarriaren bidez errentagarritasun berezia, aparteko lana eta lanpostuetan agertutako interes edo iniziatiba ordainduko dira”. Halaber, “Osagarri hori lanpostuaren garapenarekin zuzenezuzenean zerikusia duten gorabehera objektiboak eta Administrazioak eta langileen ordezkariak adostu lezaketen irizpide eta adordioak kontuan izanda emango da”.

Azken finean, Euskal Herriko Poliziari buruzko Legearen 103. artikulua Mahaiarekin negoziatu ostean Eusko Jaurlaritzaren Dekretuaren bitartez onetsi zen akordioaren 57. artikulua garatzen ditu aipatutako aginduak, ekoizgarritasun-osagarria ezarriz aparteko jardura ordaintzeko, hau da, goragoko kategoriako zereginak egitea, lanpostuak bete ezin direlako, erakundeak ez duelako kategoria eta eskala betekizunak betetzen dituen langilerik.¹

¹ Poliziaren funtzio publikoak erakusten dituen berezitasunak aintzat hartzea arauketa baten xede behar luke izan, Euskal Herriko Poliziaren uztailaren 17ko 1992/17 Legean barne hartuta, zeinak “euskal administrazio publikoen meneko diren polizia kidegoetako langileria araubide berariazkoa” arautzen duen (1 art.).



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III.3 DIRU-LAGUNTZAK

3.3.1. Zuzeneko diru-laguntzak

Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen 49.7 eta 49.9 artikuluek diote zuzeneko diru-laguntzei ezin izango zaiela aplikatu horiek emateko akordioen publikitatea. Horren ordez, horien berri eman behar zaio, sei hilean behin, Eusko Legebiltzarreko Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontuen Batzordeari.

Euskal Autonomia Erkidegoan ez da aplikatu behar Estatuko 38/2003 Legeak ezarritakoa, bertako hogeita bigarren xedapen gehigarrian azaldutakoaren arabera.²

3.3.4. Ordainketa aurreratuak

a) Karrantzako Minda, S.L.ri egindako ordainketari dagokionez, bermeak emateko salbuesteko espedientea dago. Gobernu Kontseiluaren akordioa 2009ko apirilaren 7koa da.³

3.3.5. GAITEK programa

“2008ko azaroaren 27ko Aginduak, Programa arautzen duenak, ez du onuradunaren obligaziotzat hartzen emakida ebazpena gauzatu baino lehenago Gizarte Segurantzarekiko obligazioetan gaurkotua dagoela egiaztatzea; horrek 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorren 14.e) artikulua urratzen du, Lege bereko Azken Xedapen Lehenengoaren arabera oinarritzko legeria dena.”

Eusko Jaurlaritzaren Lehendakariordetzako Araubide Juridiko eta Autonomi Garapenerako Idazkaritza Nagusiko Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzak Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra EAEko Administrazioaren laguntza eta diru-laguntzen araubidean izandako eraginari buruzko txostena egin zuen 2004ko martxoaren 3an. Txosten horren arabera, ondorioetan dakarrenari jarraituz, “38/2003 Legearen xedapen gehigarrietako hogeita bigarrenak dio legea ez dela autonomia-erkidegoan aplikatu behar.”

“Laguntza hauen deialdia Programa arautzen duen Aginduaren 19.3 artikuluan ezarritako gehienezko epearekiko (6 hilabete) 4,5 hilabeteko atzerapenez ebatzi eta jakinarazi zaie interesdunei.”

²

Diru-laguntzen 38/2003 Legearen 18. artikulua lehenengo atalean agintzen du obligazioa dagoela emandako diru-laguntzak dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzeko. 22. Xedapen gehigarriak zera dio: “Foru araubidearen indarrez, Lege hori Euskal Autonomia Erkidegoari ezartzen zaionean, Autonomia Estatutuan eta apirilaren 2ko 7/1985 Legearen xedapen gehigarri bigarrenagoan, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituena, erabakitakoari men eginez gauzatuko da; gainera, aipatutako Legearen 18. artikulua Estatuko oinarritzko legedi izaera du eta ez da ikusi EAEn Autonomia Estatutuak errespetu gehigarritzko inongo exijentziarik agintzen duenik, horren edukiaren ezagarratasun eza eragingo duenik.

³

Karrantzako Minda, SLri egindako ordainketa, 320 mila eurokoa, bermeak salbuesteko Gobernu Kontseiluak hartutako erabakiaren ondoren egindako diru-laguntzaren zabalkuntzari dagokio.



Hala gertatu da Teknologia Zuzendaritzak normalean deialdiak ireki ondoren jasotzen dituelako beste partida batzuetako soberakinetatik edo aparteko planak onestearen ondorioz eratorritako aurrekontu-transferentziak. Beraz, norgehiagokako programa denez, laguntzen adjudikazioa atzeratu egiten da aurrekontu-zabalkuntza horiek kontuan izateko.

“Deialdiaren ebazpenean ez da adierazi laguntza eman ez zaien eskabideei uko egiteko arrazoa eta horrek Programa arautzen duen Aginduaren 19.2 artikulua urratzen du.”

Kasu guztietan, eskaerak ebazteko ebazpenarekin batera, ukatzeko arrazoiak azaltzen dituen banan-banako eranskina bidaltzen zaio laguntza ukatu zaion erakunde eskatzaile bakoitzari.

“Fiskalizatutako espediente bakoitzean txertatzen den proposamenaren analisisa izenpetu gabe dago eta honenbestez, ezin jakin daiteke SPRIren Teknologia eta Berrikuntzarako Unitate Estrategikoak egin duen edo ez, Programa arautzen duen Aginduaren 16.3 artikulua agintzen duen moduan.”

SPRIk, Gaitek laguntza-programaren erakunde laguntzailea den aldetik, proiektuen azterketa eta ebaluazioa egiten du (proposamena aztertzeke UET-110 agiria), horretarako garatutako aplikazio informatikoan zuzenean (IDI web programa), eta bertan azaltzen dira ebaluatzailearen datuak. Teknologia Zuzendaritzak aplikaziotik bertatik jasotzen ditu proposamen horien kopiak, espediente bakoitzari eransteke.

“Laguntzak emateko 3,2 milioi euro egin dituzten 22 espediente aztertzean eta laguntzak ukatzeko beste bi aztertzean hona hemen azaleratu diren lege haustekak:

Programa arautzen duen Aginduaren 20. artikulua agintzen du diru-laguntzaren ordainketa bi zatitan gauzatuko dela: %70a, emakida ebazpena jakinarazi ondoren, eta gainerako % 30a, behin programa amaitua dela, alde aurretik frogagarria aurkeztu ondoren. % 70aren ordainketa aurreratua egiteko ez du inongo berme-araubiderik ezartzen eta horrek 698/1991 Dekretuaren 3.2 artikulua urratzen du, EAEn diru-laguntzen berme eta itzulketen araubide orokorra arautzen duena; dekretu horrek bermea eskatzeko obligazioa ezartzen du ordainketa aurreratuak egiten direnean eta diru-laguntzaren zenbatekoa 180.304 eurotik gorakoa denean. Fiskalizatutako deialdian, 7 onuradunek kopuru hori gainditzen duten diru-laguntzak eskuratu dituzte eta horiei emandako diru-laguntzek guztira 1,5 milioi euro egiten zuten.”

10.3 c) artikuluan ezarritakoaren arabera, nolahi ere, itzuli ezin den diru-laguntzaren gehieneko zenbatekoa 250.000 eurokoa izango da onuradun bakoitzeko eta urteko. Aurrerapena diru-laguntzaren % 70ekoa dela kontuan hartuta, inola ere ez dira egiten 180.000 euro baino gehiagoko aurrerapenak, eta beraz ez da abalik eskatu behar.

“Agindu arautzailearen 10.2 artikulua zera agintzen du: "proiektu bakoitzari emango zaion diru-laguntza, onartutako proiektu bakoitzarentzat onetsitako gastu lagungarrien



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

aurrekontuaren gainean eman daitekeen laguntza kopuru handiena izango da (enpresa ertainentzat % 35 arte)". Guztira 0,2 milioi euroren zenbatekoa egin duten aztertutako espedienteetarik 3tan kopuru handien modura ezarritako ehunekoaren gainetik eman da diru-laguntza (% 40-% 41)."

Aginduaren 10. artikuluko horretako 3. atalak laguntzen gehienezko intentsitateak ezartzen ditu, bai lankidetzan dabiltzan enpresen proiektuetarako baita banakako proiektuetarako ere, jarraian azaldutako koadroetan ikus daitekeen bezala:

Lankidetzan egindako proiektuak:

Laguntzaren intentsitatea	Enpresa txikia	Enpresa ertaina	Enpresa handia
Oinarrizkoa	% 25	% 25	% 25
Prima (Erkidegoko marko-arauaren 5.1.3.a) art.)	% 20	% 10	% 0
Prima (Erkidegoko marko-arauaren 5.1.3.b.i) art.)	% 5	% 15	% 15
Gehienezko intentsitateak	% 50	% 50	% 40

Banakako proiektuak:

Laguntzaren intentsitatea	Enpresa txikia	Enpresa ertaina	Enpresa handia
Oinarrizkoa	% 25	% 25	% 25
Prima (Erkidegoko marko-arauaren 5.1.3.a) art.)	% 15	% 10	% 0
Gehienezko intentsitateak	% 40	% 35	% 25

Ikus daitekeen bezala, txostena aipatzen duen enpresa ertainentzako % 35eko gehienezko intentsitatea banakako proiektuetarako ezarri da, eta diru-laguntzaren % 50era arte lor daiteke lankidetzan egindako proiektuen kasuan.

“Laguntzei erabilera zuzena eman zaiela egiaztatzeko gerora egindako kontrola ez da behar hainbatekoa, ez oinarri arautzaileek, ez Sailaren jardunak ez baitute beharrezkoa den dokumentazio osoa eskatu, diruz lagundutako inbertsio eta gastu guztiak egin direla justifikatuko duena. Izaera orokorrarekin eta diru-laguntza ematen duen sailak zehaztutako kopuru jakin batetik aurrera gomendatzen da diru-laguntzaren onuradunak aurkezten duen ziurtagiri ekonomikoarekin batera kontuen auditore baten txostena aurkezteko; auditore horrek Kontabilitate eta Kontuen Auditoriako Institutuaren (ICAC) baitako Kontuen Auditoreen Erregistro Ofizialean jarduneko modura izena emanda egon beharko du. Auditoria egitetik eratorritako gastua diruz lagungarria izan daiteke laguntzen oinarri arautzaileek hala erabakitzen dutenean eta bertan zehaztutako muga arte.”

Espediente jakin batzuen diru-laguntzen bolumena deialdiaren guztizko aurrekontuaren %10ekoa izan da (28.000.000 euro 2009an), eta diruz lagundutako guztizko gastua justifikatzen duten agiri guztien kopia konpultsatuak eskatu ditu Teknologia Zuzendaritzak.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Hala ere, egoki iruditu zaio egindako gomendioari, justifikazioa egiaztatzeko kontrolak handitzearren.

3.3.6. HEZKOOP programa

2008ko diru-laguntzen programak ebaluatzeko memorian, programa honen zenbait alderdi aztertu dira, hau da, lortutako emaitzak, duen erabilgarritasuna eta gizarteko eragina, eta mantentzea edo kentzea komeni den, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen 49.8 artikuluan ezarritakoa betez. 2009ko memorian agertu beharrean 2008ko memorian azaltzeko arrazoia da programa arautzen duen agindua 2008ko irailaren 2koa dela.

III.4. KONTRATAZIOA.

III.4.1 AURREKO EKITALDIETAN ADJUDIKATUTAKO ESPEDIENTEAK

3. ESP.:

Aipatzen den 2. aldaketa 2009ko maiatzaren 4an onetsi zen teknikoki, eta 2010eko martxoaren 26an onetsi zuen Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuak, Agindu bidez, eta berriro doitu zen fidantza. 2010eko apirilaren 21ean formalizatu zen kontratu bidez.

5. ESP.:

Pilatzeagatiko ordainketak Eusko Jaurlaritzaren Diruzaintza Nagusiak erregistratutako bermeen bitartez abalatu ziren. Berme horien zenbakiak F200701754, F200701755, F200701756 eta F200701757 ziren, eta 39.966,99 euroko zenbatekoa zuen bakoitzak. Horrek esan nahi du guztira 159.867,90 euroko zenbatekoa bermatu zela, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen testu bateginaren 145.2 artikulua xedatutakoari jarraituz. Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2009ko abenduaren 17ko Aginduaren bitartez, materialak pilatzeagatik egindako lau bermeak erabiltzea agindu zen.

Hala eta guztiz ere, pilatzeagatik egindako bermeetako biren abalak ezarri zituen Oinarri EBBk abalak erabiltzeko aginduaren aurkako errekurtsua aurkeztu zuen administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren aurrean. Izan ere, bere ustez, abalak iraungi egin ziren, zuten indarraldia amaitu zelako, eta, ondorioz, Administrazioak ezin zituen eskatu. Hala ere, Administrazioarekiko Auzien Gasteizko 2. zenbakiko Auzitegiak 2010eko abenduaren 7an hartutako 616/2010 epaiak gaitzetsi egin zuen Oinarri EBBren errekurtsua. Bere ustez, iraungitze-data ezartzen duen klausula “ezin da bete, antolamendu juridikoaren aurka egiten duelako, eta, ondorioz, ipini ez zela eta Administrazioarentzat loteslea ez dela ulertu behar da”.

Oinarri EBBk epai horren kontrako errekurtsua aurkeztu zuen apelazioan eta, beraz, aipatutako errekurtsua ebatzi arte ezin izango dira erabili falta diren pilatzeagatiko bi bermeak.

Horren guztiaren ondorioz, ezin da esan Administrazio honek ez duela bete Herri Administrazioen Kontratuen Legearen testu bateginaren 145.2 artikulua.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III.4.2 2009AN ADJUDIKATUTAKO ESPEDIENTEAK

49. ESP.:

Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua erabili zen hautaketa egiteko. Hori dela eta, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 138.2 artikuluaurreikuspenak betetz, adjudikazioari buruzko publizitatea egin da, kontratatzailearen profilean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (85. zk., 2009ko maiatzaren 8koa) argitaratuz.

51. ESP.:

Kontratu hau prozedura negoziatuaren bitartez izapidetu zen, eta lizitatzailleek eskainitako prezioa izan zen ezarri zen balorazio-irizpide bakarra.

SPKLren 145. artikulua ezarritakoaren arabera, kontratuaren adjudikazioduna hautatzeko irizpide bakarra prezioa denean, gehienez 15 eguneko epean egin beharko da behin-behineko adjudikazioa, proposamenak ireki eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.

Hala ere, kontuan izan behar da horrelako hornikuntza bat kontratatzea (energia elektrikoa) ez dela erraza. Hori dela eta, jasotako eskaintzen balorazioa berrikusi egin behar izan zen, jasotako eskaintzek baldintza-agirietan deskribatu eta aurreikusitako kontsumo elektriko guztiak hartzen zituzten aztertzearen. Horrexegatik ezin izan zen adjudikazioa egin legean aurreikusitako 15 eguneko epean.

53. ESP.:

Honakoa aipatu da “ez da behar hainbat justifikatzen eskaintza egokiena bereizteko hautatu diren esleipen irizpideak”. Horri dagokionez, kontuan izan behar da etxez etxeko dialisiak (terapeutikoa, etengabeko dialisi peritoneal anbulatorioa, eta automatizatua zikladoreaz) aukera ematen duela odola garbitzeko, mintz peritonealaren bitartez, eta kateter bat erabiliz poltsa bikoitzeko sistema batean dauden likido bereziak barrunbe peritonealera sartzearen bitartez. Era berean, etxeko hemodialisiaren modalitate terapeutikoa, gaixoak, ospitalean entrenatu ondoren, etxean egindako teknika dialitiko da. 2-3 orduko saioak izaten dira, astean gutxienez 5 aldiz.

Gaixoei beharrezko elementu guztiak ematen zaizkie dialisia etxean hartzeko: dialisirako monitorea, likidoen poltsak espezialisten aginduen arabera, konektologia sistemak, desinfektatzeko elementuak, baskula eta tentsiometroak, etab. Halaber, gaixoen segimendu klinikoa egiten da Osakidetzako ospitaleen nefrologia unitateetan. Bada, elementu eta produktu horiek egin eta banatzen dituzten enpresek teknologikoki egokiak diren produktuak egiaztatu behar dituzte, eta gainera nahitaezko betekizun guztiak bildu beharko dituzte giza baliabideen eta antolaketaren ikuspegitik.

Honakoak dira aurreikusitako irizpideak:

a) terapia egiteko berariazko prozedura eta ekipoen ezaugarriak:



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

1. Irizpidea. Baloratzeko moduko hobekuntza teknologikoak material eta ekipoetan: serumak, poltsak, konexio-sistemak eta soluzioen konposizioa.

1. konektibitate-sistema hobetuak
2. poltsa anizkoitzeko sistema hobetuak
3. egokitutako konposizio ezberdinak dituzten likidoak izatea
4. latexik gabeko material hipoalergenikoak
5. biobateragarritasun handiko materialak, plastifikatzailerik eta latexik gabe

2. Irizpidea. Hobekuntza teknologikoak makina zikladoreetan, ezaugarri fisikoak, prestazioak eta konektibitatea

1. alarma anizkoitzeko sistemak
2. datuak programatzeko txartelak
3. zarata isolatzeko hobekuntzak
4. konektibitatea eta berariazko softwarea
5. erabili eta mugitzeko erraztasuna
6. pediatriako modalitatea duen zikladorea
7. 5. aldaketarako aukera duen DPZ

b) eskainitako zerbitzuaren kalitatearen ezaugarriak:

1. Irizpidea. Hobekuntzak bezeroari arreta emateko zerbitzuan.

1. erreklamazio eta iradokizunen zirkuitua deskribatzea
2. oinarrizko dokumentazioa euskaraz izatea
3. gaixoari informazioa emateko web gunea
4. erreklamazioak kudeatzeko sistema ziurtatua
5. erizainek emandako arreta pertsonalizatua

2. Irizpidea. Hobekuntzak zikladorea ordeztzeko denboran, matxurarik izatekotan.

1. materiala etxean ordezte 24 orduko epean

c) zerbitzua kudeatzeko planaren ezaugarriak:

1. Irizpidea. Zerbitzua gauzatzean proposatutako eraginkortasun-hobekuntzak baloratuko dira, baita informazio-sistema ere.



Zehaztutako irizpide horien enpresa lizitatzailerak aurkeztutako eskaintzak baloratzeko nahikoak eta egokiak direla uste da, aurkeztutako sistemen ezaugarriak, eta enpresen antolaketa- eta zerbitzu-gaitasunak bereizteko aukera ematen dutela.

Adjudikatzeko irizpideak hautatzeari buruzko justifikaziorik behar ez dela ondorioztatu da, kontratatu beharreko zerbitzuaren “kalitate objektiboa” izan litekeenetik urruntzen ez direlako. Aplikatutako irizpideak zerbitzuaren kalitatea objektiboki zehazten duten ezaugarriak dira.

III.7. EUZKADIKO GOBERNUAREN FUNTSA (1936-1979)

Auzitegiak espediente honi buruz egindako gogoetei dagokienez, honako alegazio hauek egin dira:

“1.- Ez erabakiarekin baterako oroitidazkiak, ez Gobernu Kontseiluaren 2009ko apirilaren 21eko erabakiak berak ere –diru-laguntza zuzena ematen duenak-, ez dute EAEONALEn 49.7 artikulua agintzen duen arrazoitza barne hartzen.”

Ez gaude ados Auzitegiaren iritziarekin, ulertzen baita aipatzen den diru-laguntzaren gauzatzea aurretiko Lankidetzaren Protokoloaren antolaketa dela, diru-laguntza eman baino hilabete batzuk lehenago sinatu zena, eta hori gabe diru-laguntzak ez lukeela zentzurik izango. Horrexegatik dira diru-laguntzaren motibazioa protokoloan ezarritako prozedurak, legezketasun eta egokierari buruzko motibazio nahikoak dituztela. Izan ere, lankidetzaren protokolo hori da diru-laguntza/konpentsazioa bera kokatu eta justifikatzen duena, protokoloetik dagoela diseinaturik. Are gehiago, sinatutako eta motibatutako protokolorik gabe (Auzitegiak ez du inolako arazorik ikusi hori sinatzeko eta legezketasun eta egokierari buruzko prozedura egiteko), konpentsatzeko diru-laguntzak ez luke inolako zentzurik izango, eta protokoloa sinatzea eragin zuten arrazoiak dira motibazioa. Hori dela eta, protokoloaren memoria hartu behar da diru-laguntzaren memoria gisa, diru-laguntzaren espedientearen azken fasea eta gauzatzea baino ez dela. Zuzeneko diru-laguntza emateko akordioaren zioen azalpenak behar bezala azaltzen ditu aurrekariak eta motibazioak.

“Berebat, ez dago jaso horretarako eskumena duen Sailak jaulki beharreko nahitaezko txosten juridikoa ere, 14/1994 Legearen 22.1.) artikulua aurreikusitakoa”.

Egia esan, ez dakigu zein den Auzitegiak aipatzen duen txosten juridikoa, aipatutako arauak eskatzen duena, honakoa baitio aipatzen duen artikulua:

“Ekonomia-kontrol fiskalaren barruan sartuko dira:

a) Honako hauek alde aurretik ikuskatzea: 1. Zuzenean nahiz zeharka ekonomiazko edukia duten erabaki-proposamenak, horiek baimentzea eta onartzea Jaurlaritzaren Kontseiluaren aginpidea denean edo horien ezagutza dagokionean. 2. Aurrekontuen aldaketak, ondareari buruzko eragiketak eta Euzkadi Diruzaintza Nagusia zordunduz bermeak emateak. 3. Zehaztu gabeko kopuruko gastuak sortaraz ditzaketen ekonomia-ekintzak edo -eragiketak, segidako hiru urtealdi baino gehiagorako diru-sarrera eta gastu konpromezua dakartenak eta gastu-mota bakoitzeko zenbatekoa araudiz ezarritakoa baino



